

Herririk Herri |4|
Durangoko udal kirol azpiegiturak
10.000 erabiltzaile izatera heldu dira



Berbaz |8|
M. Salterain: "Abadiñoko ia baserri guztiak
bisitatu ditugu toponimia lana egiteko"

Amalurra |18|
Durangoko Udalaren hiru proiektu
ingurumenaren Conama Sarietan

Fundiguelen eraikin zaharra botatzeari ekin diote asteon

Iurreta• Asteon hasi dira Fundiguel enpresako eraikina zena botatzen. Obrako arduradunek azaldu dutenez, 15-20 egun beharko dituztela aurreikusitu dute. Lurrean utzitako kutsadura kentzeko beharrak egin beharko dituzte, urte bi barru bertan 84 etxebizitza eraikitzeko.

3

300 gaztetxo batuko ditu nazioarteko judo txapelketak bihar

KIROLA• Durangoko Judo Klubak antolatuta, Euskal Herriko zein estatuko 16 judo klubetako 300 gaztetxo batuko ditu biharko txapelketak Landako Kiroldegian. Erakustaldiak araudi berritzaile baten arabera epaituko dituzte.

16

Hamar euskal film eta dokumental Berrizen

KULTURA• Azken urteetan Euskal Herriko zinegileek burutu duten lanaren erakusleho izan guran antolatu dute Euskal Zinemaren Astea Berrizen. Bosna film eta dokumental eskainiko dituzte, azaroaren 22an hasi eta abenduaren 2ra arte, Kultur Etxean, iluntzeetan.

12

AZAROAK 25

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna



• **Durango**
Berbaro euskara elkarteak webgune berria sareratu du

3

• **Atxondo**
Euskara Biziberritzeko Plana hainbat alorretara zabalduko dute

4

• **Zaldibar**
Sanandres jaia hasiko dira

6

Azokak kurduen kultura izango du ardatz aurten

> Abenduaren 4tik 8ra ospatuko den 45. Azokako gaia erotismoa izango da

> Argizaiola saria Imanol Urbietak jasoko du aurten, Gerediagak jakitera eman duenez

11



Azokaren aurkezpenean, Gerediagako ordezkariak gainera, ekimenaren bultzatzaileak bildu dira. Kepa Aginako

PROMOZIO BERRIA: 23 ETXEBIZITZA - LOKAL KOMERTZIALAK - GARAJEAK

FAUSTEGOIENAN (DURANGO)

ETXEBIZITZAK
1, 2, eta 3 logela
Armairu aurrealdeekin

PREZIOAK:
165.000€-tik aurrera
(BEZ gabe)

Lehen mailako materialak
Garajea eta trastelekua aukeran

ORDAINKETA EGITEKO AUKERA PAREGABEAK

bbk -k finantziatua



**ERAIKUNTZA
ETA GESTIOA**



Joxemiel Barandiaran, 8 A, 1ªC - DURANGO
Tel.: 94 681 44 95 • Mug.: 650 397 007
e-mail: argolabe@hotmail.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Akordioa adostu eta greba amaitu dute Fumbarrin

Joan zen aste amaieran akordioa sinatu zuten LAB sindikatuak eta Fumbarriko zuzendaritzak. Bari-ku goizean beharginekin egindako batzarrean, gehiengoa ados agertu zen akordio horregaz. 50 langile batu ziren (guztira, 90 bat langile dira; horietako 22 bazkideak) eta akordioak 35 aldeko boto, 12 kontrako eta hiru zuri jaso zituen. Beraz, astelehen honetan lanera bueltatu dira langile guztiak. LABeko ordezkariak "gustura" agertu dira lortutako akordioagaz.

Akordioa ez zuten Fumbarrin ordezkariak zuten sindikatu guztiek sinatu. LABek bai (lau ordezkari dauzka), baina CCOOK (ordezkari bat dauka) ez du akordioa sinatu, "ñabardura" batez ez daudelako konforme.

Langileen gehiengoa ados agertu eta gero, astelehenean bueltatu ziren lanera

Langileen aldetik eskakizunik garrantzitsuenak enpleguaren bermea eta baldintza ekonomikoaren gainekoak ziren. Negoziazioetan puntu horietan adostasuna lortzea ezinbestekoa izan da 27 egun iraun duen greba mugagabea amaitzeko. ■ J.D.

Durangoko udalaren kirol azpiegiturak 10.000 erabiltzaile izatera heldu dira. 2008an 4.100 erabiltzaile zituen eta Durango Kirolak organoko zuzendaritza batzordeak lau urteko epea ipini zuen 10.000 izatera heltzeko. Ander Gorrotxategi Gazteria, Kirol eta Hezkuntza batzordeko presidentek azaldu duenez, "espero baino lehen" lortu dute ezarritako kopurua, eta "azpiegitura berriek eskaintzak zabaltzea eta hobetzea ahalbidetu digute".

Kopuru horretan federatuta daudenak zein edozein ekin-tzetan modu jarraituan parte hartzen duten erabiltzaileak sartzen dira. Erabiltzaile federatuei dagokionez, aurten kopurua %25 igo dela azaldu du Gorrotxategi, baina, batez ere, "denontzako kirola" bultzatzeko egindako ahalegina azpimarratu du. Bide

2012rako aurreikusita zuten kopurura "espero baino lehen" heldu direla azaldu dute

horretatik, federatu bako norbanakoei zuzendutako igerilekuko ekintza taldeak 19tik 55era igo dira, eta igeriketa taldeak 11tik 30era; aurten igerilekura batu diren kopurua %250 igo dela ere azpimarratu dute.

Uretakoak ez diren ekintzetan, taldeak bibidertu (43tik 85era) eta ekintza berriak abian

10.000 erabiltzaile dauzkate udal kirol azpiegiturek

Azpiegitura berriek eskaintza kopurua "haztea eta hobetzea" ahalbidetu dute



Erabiltzaileen profilari dagokionez, %65 emakumeak dira eta %35 gizonak.

ipini dituzte: Circuit Express, stretching... Gorrotxategi 1.230 erabiltzaile dituen fitness gela berriaren "arraskata" ere azpimarratu du. Erabiltzaileen profilari dagokionez, %65 emaku-

meak dira. Hala ere, kopuru orokor hori orekatu egin da, orain urte eta erdi emakumeak %85 baitziren. Igerilekua, aldiz, gehiago erabiltzen dute gizonak (%57) eta baita fitness gela ere (%79).

Hurrengo hileetan "nagusien sektoreko eskaintza zabaltzea" dute helburu. ■ J.D.

> Bideoa ikusgai www.anboto.org-en

Juan de Iciar auzunea atontzen, irisgarritasuna hobetzeko asmoz

Mugikortasun arazoak dituztenentzat eta larrialdietarako mugatu dute sarbidea



Kurutziaga-Astarloa lotunean ere asfalto inprimatua ipini dute.

Azaroaren hasieran Juan de Iciar auzunea gaur egungo irisgarritasun neurrietara egokitzeko lanak hasi zituzten. Lanak amaitzean, autoei dagokionez, "emergentzia zerbitzuentzako eta mugikortasun arazoak dituzten laguntzako bakkarririk egongo da baimenduta", esan du Aitziber Irigorasek alkateak.

Auzunea bost bloke osatzen dute. Behetik hasita, lehen bloke bietara Larrasoloeta kaletik sartu ahalko da, eta eraikinaren beste aldetik egingo diote irteera. Hirugarren blokeak, berriz, toki bereetik sartu eta irten beharko da.

Gorengo bloke bietara Antso Estegiz kaletik egingo diote sarrera, eta toki bereetik izango du irteera. Proiektua eserlekuekin eta kale-argiekin osatuko dute. Zoruari dagokionez, asfalto inprimatua ipini dute. Irigorasek azaldu duenez, proiektua osatzerako orduan Juan de Iciar auzuneko Santi-Sapuherrri auzo elkarreagaz elkar-lanean ibili dira. ■ J.D.

PSE-EE: "Alkateak galarazi egin dio euskara teknikariari guri aholkularitza ematea"

Sozialistek salatu dutenez, Aitziber Irigorasek "arma politiko" moduan darabil euskara

Durangoko PSE-EE "haserre" dago, euren esanetan Aitziber Irigorasek alkateak "galarazi" egin diolako udaleko euskara teknikariari euri aholkularitza ematea. Euskara "arma politiko" moduan darabil eta Euskara Normalizatze Plana "oztopatzen" ari dela salatu dute.

Sozialisten esanetan, alkateak "egoitza politiko pribatu" legez darabil udala

Sozialisten esanetan, "orain dela gutxi arte" euskara teknikariaren laguntza jasotzen zuten, udal gaiei buruzko aholkularitza lanetan. Zalantzak argitzeko eta zuzenketak egiteko erabiltzen zuten zerbitzua. Laguntza horri esker, "apurka-apurka, udalbatzarretan euskara erabiltzen hasi

gara, eta proposamenak bi hizkuntzetan aurkeztu ahal izan ditugu". Azken asteetan, ordea, "egoera aldatu" egin dela diote.

Alkatearen jarrera ez ei dator bat EAJK hizkuntza arloan erakutsi izan duen diskurtsoagaz, eta "herritarrei ezagutzera eman gura diegu aurpegi bikoitz hori". Horregaz batera, aurreko gobernu taldeen aldetik "sekula" ez dutela horrelako "debeku politikarik" jaso argitu nahi izan dute: "Alkatea udala egoitza politiko pribatu bat balitz bezala gobernatzen dabil, ezkutakeria nabarmenagaz eta etenik barik ukatzen digu teknikariaren laguntza izateko dugun eskubidea". ■ J.D.

Aurreko gobernu taldeen aldetik "sekula" ez ei dute antzeko debekurik jaso



Obra publikoak iragarriko dituen protokolo eske

Udalak gauzatzen dituen obra publikoak hasi aurretik, lanek modu batera edo bestera eragingo dieten bizilagunei horren berri jakinaraziko dien protokoloa sustatu du PSE-EEK. Hirigintza Batzordean proposamena "ontzat jo" dutela adierazi dute. Protokolo horrek lanek kaltetutakoekin egin beharreko batzarrak erregulatzeaz gainera, lanen gaineko aurretiazko informazioa ere ahalbidetuko luke: planoak, aurrekontuak, finantzazioa eta exekuzio epeak.

PSE-EEK salatu duenez, auzotar askoren kezak jaso ohi dituzte obrak hasiko zirenik inork ez dielako esan

Pilar Rios zinegotziak orain arte "zeozer txarto" egiten ibili direla salatu du. Izan ere, azken hileetan zuzenki eragiten dieten obren berri jaso ez duten auzotarren eta merkatarien "kexa asko" jaso dituzte. Esaterako, Riosen esanetan, "Landakoko biribilgunea egiteko lanetan, ez zen auzotarrekin eta merkatariekin ezelako batzar informatiborik egin". Montevideo kalea urbanizatzeko lanetan, aldiz, "auzotar batzuk batu zituen batzarra egin zen, baina ez zituzten elkarteak eta merkatariak deitu; ezta hirigintza batzordeko kideak ere, horrela eskatu bagenuen ere". ■ J.D.

Azken aldian Interneteko webguneek hartu duten norabideari jarraituz, Berbarok webgune berria abian ipini du gaur, "askoz dinamikoagoa dena eta parte-hartzea sustatzen duena", euskara elkarteko kideek adierazi dutenez.

2009an egindako gogoeta estrategikoan, bazkideen aldetik jasotako iritzietako bat Internetek hartu-eman sozialerako eskaintzen dituen aukera anitzak —2.0 deitzen zaiona— Berbaroren webgunean txertatzea izan zen. Orduan hasitako bidearen amaiera www.berbaro.com helbidean ezagutu daiteke.

Webgunea denen artean eraikitzen den komunikazio tresna izatea gura dute

Di-da enpresa arduratu da webguneko komunikazio planteamendu eta diseinuaz

Gaur inauguratu duten webguneak ez du aurrekoagaz zerikusirik. Alde batetik, gura duen edonork albisteetan komentarioak gehitzeko aukera izango du. Diseinuaz arduratu den Di-da enpresako kudeatzailea den Gorka Barruetabeñaren esanetan, "denen artean eraikiko den komunikazio tresna bihurtzea gura dugu". Horrela, alde bateko komunikazioa bakarrik ahalbidetzen zuen webgune estatikotik hartu-eman sustatzen duen gune dinamikorako saltoa eman dute.

Berbaro euskara elkarteak webgune berritua eta dinamikoa sareratu du gaur

Di-da komunikazio enpresa arduratu da komunikazio planteamendu eta garapenez; esaterako, komentarioak egiteko aukera emango dute



Webgune berria, dinamikoa, aktiboa eta koloretsua dela adierazi dute Berbaroko kideek.

Webgunearen bitartez, Berbaroko kideen eta webguneko erabiltzaileen artean hartu-eman bat sortuko da, eta iritzia jasotzeko ere balioko du.

Bideoak ikusgai

Berbaroko webgune berriak lehen eskaintzen duen informazio guztia eskuragarri izango du orain ere, baina horrez gainera, eskaintza horri euskarri berrietan eman-

dako informazioa gehituko diote. Izan ere, testuez eta argazkiez gainera, esaterako, Berbarok garatzen dituen ekitaldien gaineko bideoak ikusteko aukera ere eskainiko dute gaurtik aurrera.

Euskara elkartearen urte osoko plangintza zein astean asteko ekintzen berri jakin gura duenak, nahi izanez gero, webgunearen bitartez jaso ahaliko du informazio hori guztia. ■ J.D.

Gaur abiatu duten webgune berriari Berbarok egindako ekimenean gaineko bideoak ere ipiniko dituzte

OTXANDIO

Pibote elektronikoak abenduan ipiniko dituzte indarrean

Alde Zaharrerako sarrera-irteerak kontrolatzeko pibote elektronikoak ipintzea erabaki dute

Oraintsu arte, Alde Zaharreko sarrera-irteerak eskuzko piboteen bidez mugatzen zituzten. Sistema horrek, ordea, arazoak eman ditu, batez ere, sarrera-irteerak kontratatzerako orduan. Horregatik,

Udala hasita dago piboteak irekitzeko balio duen txartela kudeatzen



Dagoeneko, kokatu dituzte pibote elektronikoak sarreretan.

hemendik aurrera pibote elektronikoaren bidez kontrolatuko dute Alde Zaharrerako auto emaria. 100.000 euroko diru-atlagaz (obra zibila barne), dagoeneko ipiniko dituzte piboteak, eta udalaren asmoa azaroan txartelak kudeatzea eta abenduan zehar sistema indarrean ipintzea da.

Udaletxe pareko piboteak aurretik ipinita zeuden, beraz, orain Uribarrena eta Urigoienakoak kokatu dituzte. Alde Zaharrean garajea duenak, txartel berriagaz, eguneko 24 orduetan sartu ahaliko du barrura. Garajetik ez dutenek, berriz, kargatzeko eta deskargatzeko ordutegian bakarrik (08:00etatik 12:30era). Hala ere, ordutegi horretatik kanpora sartzeko beharra duenak udaletxera deitu dezake eta une jakin horretarako balidatu egingo diote txartela. Udala hasita dago txartelak kudeatzen (lau euro).

Urduri dantza taldea

Bestalde, 2011ko ekainean Urduri dantza taldeak lehenengo dantzari eguna antolatu gura du eta herritarrek dantza taldera batzeko deia egin dute. Ekimenean parte-hartzeko interesa dutenek Urduri dantza taldeko edozein ardura duni jakinarazita nahikoa dute; izena emateko azken eguna azaroaren 25a izango da. ■ J.D.

azaroaren 21ean, DURANGOKO LANDAKO GUNEAN 17:30ean

ONINTZA ENBEITA ETXAHUN LEKUE JONE URIA IBON AJURIA GORKA LAZKANO XABAT GALLETEBEITIA

Garatzen: **MAITE BERRIOZABAL**

Logos: Bizkaiko, EFA, GFA, bbk, DURANGO, anboto

ATXONDO

Euskara Biziberritzeko Planari ekingo dio Udalak, herrian euskara bultzatzeko

Datozen lau urteetarako plana izango da eta herriko esparru ugarian eragingo du

Udal barruan euskararen erabile-
ra bultzatzeko plana martxan ipi-
ni eta gero, orain udaletik kanpo
herrian egiten diren ekintzetan
euskara biziberritzeko plana hasi-
ko du Atxondoko Udalak.

Herriko hamar alorretan eus-
karak duen presentzia aztertuko
dute, eta gero euskara biziberritze-

**Planari jarraipena aholku
batzorde batek egingo dio eta
herriar guztiei zabalik dago**

ko neurriak proposatuko dituzte.
Honakoak dira lan esparru horiek:
familiako transmisioa, euskaldun-
tze-alfabetatzea, irakaskuntza,
administrazioa, lan mundua, aisia,
kirola, kultura, komunikabi-
deak eta teknologia.

Atxondon euskaldun eta ia
euskaldunen kopurua herritarren
% 72koa da. Ezagutza hori dela-
eta, UEMA udal euskaldunen man-
komunitatean dago udala. UEMAK
bultzatu du datozen lau urteeta-
rako plan hau, eta jarraipena egi-
teko herritarrei zabalik dagoen
aholku batzordea eratu dute. ■ A.U.

IURRETA



Duela urte bete Arriandira eroan zuen jarduera 1930ean sortutako Fundiguél fundizioak

Fundiguélen eraikin zaharra botatzen hasi dira, urte bi barru bertan etxeak eraikitze

Asteon hasi dira fundizioa zena botatzen, eta 15-20 egun beharko dituzte

Urte bi barru Fundiguélen
eraikin zaharra dagoen
lekuan etxebizitzak eraiki-
tzen hasiko dira. Asteon hasi dira
eraikina botatzeko lanak, eta
hamabost-hogei egun barru dena
botata egongo dela aurreikusitako
lanen arduradunek. Lurreko kutsa-
dura kentzeko beharrak egin
beharko dituzte gero bertan etxe-
bizitzak egiteko, eta horretarako
denbora gehiago beharko dute;
urtebete, gutxienez.

Fundizioa zenaren atzealde-
tik hasi dira eraikina botatzen, eta
Maspe kalera ematen duen hor-
ma botako dute azkena. Asteon
fibrozementua izeneko material
kutsakorra kentzen hasi dira eta

atzealdea apurka-apurka erai-
sten dabilta langileak.

84 etxebizitza

Iñaki Totorikaguena Iurretako
alkateak azaldu duenez, Fundigüe-
lena izan den lursailean etxebizi-
tzak egiteko proiektua aurrera
doa. Enpresa eraikitzaileak 84
etxebizitza egingo ditu bertan,
hainbat fasetan. Alkateak aurre-
ratu du lehen fasean 24 etxebi-
zitza eraikiko dutela: "prezio kontzertatuko etxebizitza
libreak izatea gura dugu; ez dira
tasatuak izango, baina antzekoak
dira, prezioak udalaren eta enpre-
sa eraikitzailearen artean adostu
gura ditugu". ■ A.U.

**Eraikina bota eta gero,
gutxienez urte bat beharko
dute lur eremuan dagoen
kutsadura desegiteko**

**Epeak zehaztea gaitza den
arren, urte bi barru etxeak
eraikitzen hasia espero du
Totorikaguena alkateak**

Askondon zaborrontziak lurperatzeko epea urte bukaeran amaitzen da

Lanengatik kalea itxita egongo da ordura arte; bi gunetan dabilta zaborrontziak lurperatzen



Askondon bi gunetan dabilta beharrean

Askondon eta Bixente Kapana-
ga kaleetan egon diren zaborron-
tziak lurperatzeko lanak aurrera
doaz. Hile hasieratik Askondo
kalea itxita dago beharrongatik.
Urtea amaitu aurretik zabaldu-
ko dute, abenduaren 31n amai-
tzen da eta lanak egiteko epea.

Zaborrontzi guztiak lurpe-
koak izango dira laster Iurretan.
Gerora, Bidebarrieta eta Mas-
pen ere ipiniko dituzte horrela-
ko zaborrontziak, kaleotan berri-
kuntzak egiten dituztenean.

Udaltzainen lan-poltsa

Laster Iurretako Udalean udal-
tzainen lan-poltsa sortzeko hau-
taprobak egin behar dituzte, eta
interesa duenak eskabidea erre-
gistro orokorrean aurkeztu behar-
ko du, azaroaren 23a baino lehen.
Lan-poltsan sartzeko baldintze-
tako batzuk bigarren hizkuntza
eskakizuna edukitzea eta BTP
edo baliokidea den gida baime-
na izatea dira. ■ A.U.

Eguenerako kontzentrazioa eta zine foruma antolatu ditu Atxondoko Lamiak-ek

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako egunaren harira mozioa aurkeztu dute udalean

Azaroaren 25a dela-eta, indarke-
ria sexistaren kontrako mozioa aur-
keztu du asteon Atxondoko Lamiak
elkartek udalean. Eguenerako,
gainera, elkarretaratzea deitu dute
12:00etan udaletxeko arkupean,
eta arratsaldean *Solo mía* peliku-
lagaz zine foruma antolatu du ema-
kumeen elkarteak, 18:30ean uda-
letxeko pleno aretoan.

Udalbatzak onartutako
mozioak bi helburu ditu: indarke-
ria sexistaren biktimak aitortzea eta
atxondarrek indarkeri adierazpe-
nak ez ahazteko konpromisoa har-
tzea. Atxondoko Lamiak-ek NBEK
indarkeria mota honen inguruan

esandakoak nabarmendu ditu;
"giza eskubideen urraketarik zabal-
duena eta isilduena izan da histo-
rian zehar".

Sahararen aldeko mozioa

Eguazteneko udalbatzan Aaiunen
Marokoko egindako erasoak salatze-
ko eta Saharako herriari elkartasu-
na adierazteko mozio bi onartu
dituzte.

Sarekaden kontrako mozioa

Gaspe Independentisten kontrako
azken sarekadaren kontrako
mozioa ere onartu dute, EAJren abs-
tentzioagaz. ■ A.U.

BERRIZ

Turismo sektoreari begirako ikastaroak, azaroan eta abenduan

Urkiola Landa Garapenerako elkarteak eta Basquetourek eratuta, hilaren 23an da lehena

Basquetour Turismoaren Euskal
Agentziak eta Urkiola Landa Gara-
penerako elkarteak lau ikastaro
antolatu dituzte azaro eta abendu-
rako Berrizen, doan. Ikastaro hauek
turismo sektorean, ostalari zein
bezeroekin hartu-eman zuzena
duten profesionalen zuzenduta
daude. Helburua, arduradunek

prentsa oharrean azaldu dutenez,
"turismo arloan bisitari eta beze-
roei eskaintzen zaien zerbitzua
hobetzen laguntzea" da.

Hilaren 23an ekingo diote
zikloari, *Era atsegin batean arreta
egiteko moduak* ikastaroagaz.
Azaroaren 30ean, abenduaren
14an eta 20an jarraituko dute,
15:00etatik 19:00etara, gatazkak
era positiboan konpontzeko, jarre-
ra alai transmititzeko zein balia-
bide turistikoak gomendatzeko
metodoak aztertuz. Izena eman
ahal izateko 94 620 36 11 telefono
zenbakia ipini dute. ■ M.O.

**Hilaren 23an ekingo diote 'Era
atsegin batean arreta egiteko
moduak' ikastaroagaz**

Bizimodua errazteko

ASTE BATEAN **DOAN**
PROBATZEKO AUKERA!

iROBOT ETXE ASPIRAGAILUA ROOMBA

ROOMBA-531 - 390 euro (bez barne)
ROOMBA 534 PET - 450 euro



Salmenta eta zerbitzu teknikoa



iMOW BELAR MOZTAILEA

MI 322 C (400m²) - 1.520 euro (bez barne)
MI 555 C (2000m²) - 2.230 euro



JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK

Oidor Berriozabalbeitia, 14
(Estazio zaharra)

48230 Elorrio

Telefonoa-Faxa: 94 623 18 03

juanberistain@telefonica.net

ABADIÑO

Udalaren hirigintza politika salatzen eta ekintza zapatuan

Talde Independenteko gobernuak eta oposizioan dagoen EAJk bultzatzen duten hirigintza politika salatu eta alternatibak aurkezteko ekitaldia



"Kaleen bizitzera behartzen gaitu politika urbanistiko honek" zioten kartekek.

Muntsaratz, Zelaieta eta Traña-Matienan, kaleen ipinizituzten kanpin-dendetan itsatsitako kartelen bitartez zabaldu zituzten euren aldarrikapenak: duten soldata baxuagatik babesezko etxebizitza baten zotz egitean parte-hartzerik ez duten edo bankuen hipotekarik lortzen ez duten abadiñarren egoerak zabaldu zituzten herrian. "Jendeak eraikitzen dituzten etxebizitzak erosi ezin dituen arren, eraikitzen jarraitzen dute", salatzen

dute. "Neurri bako" deritzo Ezker Abertzaleak, "herrian 300 etxebizitza huts daudenean, ehunka berri eraikitzea". Etxebizitza huts horiek kudeatzeko formulak bilatu eta alokairu publikoa dira, Ezker Abertzalearen ustez, alternatibak.

"Neurri bako" deritzote herrian 300 etxebizitza huts egonda ehunka etxebizitza berri eraikitzen jarraitzeari

Muntsarazko UR8-ko prezio tasatuko etxebizitzaren hitzarmenean orain aste batzuk udal gobernuak eta jeltzaleek onartu zituzten aldaketak kritikatu ditu Ezker Abertzaleak. Etxebizitza horietako bat erosi ahal izateko baldintzak malgutzea, "diru arazorik ez daukan jendeak erosi ditzan" egin dutela diote. Bestalde, Traña-Matienako UR6-ko eraikuntza proiektua ere "eraikitzailearen eskarietara" moldatu dutela nabarmendu du Ezker Abertzaleak. ■ I.E.

Navarro, independenteen zerrendaburu berriz ere

"Alkategai izango ote naizen zalantzan ipini duten zurrumurruak ezeztatu" gura izan ditu

Udaberriko udal hauteskundeetara Talde Independentek aurkeztuko duen zerrendan lehenengoa, alkategaia, bera dela adierazi eta azkenaldian "herrian zabaldu diren esames eta komentarioak" ezeztatzeko deitu ditu Jose Luis Navarro alkateak komunikabideak.

Datozen hauteskundeetarako, "nigan ipini du taldeak konfidantza", azaldu du Navarrok. Legegintzaldi honetan alkatetzan egon den Talde Independentek laster aurkeztuko duen zerrendarako, bestalde, "gazteak erakarri" gura dituztela ere azaldu du. ■ I.E.



MALLABIA

Euskara Biziberritzeko Plana onartu du udalak

Aho batez onartu dute 2011-2014rako EBPnren plan estrategikoa Mallabiko Udaleko plenoan

Mallabiko udal ordezkariak joan zen egunean eginiko udalbatzarrean 2011-2014 urteen artean martxan jartzeko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) plan estrategikoa aho batez onartu zuten. Planean hainbat helburuzehaztu dituzte: proiektu horren

Mallabiko Udalaren Euskara Aholku Batzordea sortu dute plana jarraitzeko

bidez eremu jakinetan euskararen normalizazioa bultzatuko duten sareak antolatu eta ekimen zehatzetarako elkarlana bultzatzea; orain arte euskararen normalizazioan egindako lanei ikuspegi orokorra eman eta prozesu horretan eman litezkeen urrats berriak adostea eta herrian giza eragileen inplikazioa lortu eta bultzatzea.

Mallabiko Udalaren Euskara Aholku Batzordea sortu dute plan estrategikoa garatzeko, urteko kudeaketa-planaren jarraipena egiteko eta euskara batzordearen eskariz euskararen normalizaziorako lanak aztertzeak. ■ J. G.

IZURTZA

Mendigaineko txabola eta frontoia konpontzen

Urtea amaitu baino lehenago amaitutzat eman gura ditu udalak frontoia berritzeko zein herri basoetan dagoen eta udalaren jabetzako den Mendigaineko txabola konpontzeko obrak (25.000 euroko aurrekontuagaz). Joan zen hile amaieran ekin zieten lan biei; aldagelak atontzetik hasi dira frontoian, eta datozen asteetan frontoi osoa magotzeko asmoa daukate (57.000 euroko aurrekontua dute lanok).

Tokiko inbertsioetarako estatuko diru-laguntzagaz finantzatuta konpondu zuten frontoiaren kanpokaldea iaz, eta Aldundiaren diru-laguntza jasoko dute barnealdea egiteko.

Hurrengo batzarra, bihar

Herriko ordenamendua berrikusteko martxan ipinitako prozesuan, parte hartzeko izango dituzten bideak aurkeztu zizkieten irailen herritarrei, eta hile honetan beste bi batzarrerako deia egin dute: azaroaren 20an bata eta 27an bestea. ■ I.E.

ELORRIO

Kaleen izenen plakak aldatu eta seinaleztapenak kokatu dituzte

Herriko kaleak izendatzen dituzten plakak aldatzen dabilta egunotan, sasoi batean udalbatzarrean onartu zuten kaleen izen degia egokitzea. Plakarik gehienak aldatu dituzte dagoeneko, eta falta direnak datozen egunetan gaurkotuko dituzte. Plaka horiek hormari lotuta barik, perpendikular dabilta kokatzen, urrunagotik ikusi daitezkeen.

Herriko hainbat zerbitzu eta guneren norabidea adierazten duten seinaleak ipinita daude

Asteon amaitu dituzten lanak herriko hainbat zerbitzuren eta guneren seinaleztapenari dagozkionak dira: Iturri kultur etxea, kiroldegia, kirol etxea... Seinale horiek eraikinen norabidea markatzen dute. Eraikinetan euren ere seinaleak ipini dituzte, jendeak ezagutu ditzan. Herriko sarreretan, bestalde, ongi etorri seinaleak egokitu dituzte.

ZALDIBAR

Datorren barikuan hasi eta hilaren 30a arte, Sanandresak ospagai

Bost egunetan zehar ospatuko dira ekitaldiak; hilaren 30ean amaituko dira, egun handiagaz

Txupinazo bigaz hasiko dituzte Zaldibarren aurtengo Sanandres jaiak. Izan ere, ofizialki 19:00etan udaletxetik botatako txapliguagaz hasiko badira ere, Gaztetxe-koek 18:50ean jaurtiko dute.

Udalak antolatutako ekitaldietan umeek aukera zabalago izango dute; adibidez, zapatuan. Hilaren

29ko arratsalderako, ostera, Pintxoan Eguna eratu du Helmu-ga elkarteak. Egundua handia 30a izango da; kalejira, meza eta bazkariak gainera, pilota partiduak ere jokatu dituzte Olazarren.

Baserritar Eguna

Gaztetxean kontzertuak iragarri dituzte Kokein, Feos Pero Majos, Raxfer eta 3gabe2 taldeekin. Baserritar Eguna ere sortu dute 27rako: bazkaria eta antzerkia dituzte eskaintzan, besteak beste. Hilaren 30ean, jolasak eta txokolatada egingo dituzte umeentzat. ■ M.O.

Hilaren 29ko arratsalderako, Pintxoan Eguna eratu du Helmu-ga elkarteak

GARAI

Tasak %2 igotzea onartu du udalbatzak, aho batez

Astelehenean, ordenantza fiskalen gainean egindako batzarrean, 2011rako tasak %2 igotzea onartu zuten udal taldeek, aho batez. Frontoiaren erabilpeneko eta ezkontzen gaineko mantenduko dituzte bakarrik.

Igoera izango duten tasen artean, urarena, zaborrarena, estolderiarena eta zirkulaziorako daude, besteak beste. Udalordez-

kariak azaldu dutenez, frontoioa eta ezkontzena bere horretan uztea erabaki dute; arrazoitzeko frontoioa ipini dute adibide: iaz igo zuten tasa hau.

Bertso afarirako txartelak

Bestalde, hilaren 27an bertso-afaria izango da Paia eta Peñagarikano-gaz, eta txartelak 23ra arte hartu daitezke udaletxean. ■ M.O.

Durungaldean labor

Aste kulturala antolatu du San Trokaz jubilatuen elkarteak

Abadiñoako San Trokaz jubilatuen elkarteak XVIII. Aste Kulturala antolatu du. Astelehenean, 17:00etan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren gaineko hitzaldia eskainiko dute jubilatuen egoitzan. Martitzenean, 17:30ean, Gora Ta Gora antzerki taldearen *El mirador* antzerki saioz gozatu ahalko da Errotan. Eguaztenean, San Mamesera bisita gidatua eta eguenean txokolatada egingo dituzte.

Lazkano Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaren bila

Domekan, 17:30ean, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo finalaurrekoa jokatuko dute Landako Gunean. Durangaldeko ordezkari bakarra Gorka Lazkano berriztarra izango dugu. Beragaz batera lehian ibiliko dira Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Jone Uria, Ibon Ajuria eta Xabat Gallettebeitia. Gai-jartzaile lanak Maite Berriozabalek egingo ditu.



Adinekoen dantza saioak kiroldegian

Durangoko Udaleko Adinekoen Saialak jakinarazi duenez, adinekoek zuzendutako dantzaldiak berriro martxan ipini dituzte azaroaren hasieratik, Landako kiroldegian. Adinekoen dantzaldi horiek igandero ospatuko dituzte, arratsaldeko 18:30etik 20:30era bitartean.

DURANGALDEA

Bizaldikoen bilkura egingo dute gaur hasi eta domekara arte

Etzi Urkiolako Santutegira joango dira Bizaldiekin

Aurten seigarren aldia egingo du Bizaldikoen kontzentrazioak. Donosti Bizaldi elkarteak antolatuta, iazko moduan, 50 bat auto batzea itxaroten dute.


Gaur, 19:00etan, Artatzako aterpetxean elkartuko dira kontzentrazioan parte hartuko duten guztiak. Bihar, 10:00etan, 'Altxorren bila' jokoari hasiera emango diote. Nork bere bizaldikoa hartu eta pistarik pista Durangalde osoan zehar ibiliko dira, altxorra-

ren bila. Ondoren, 14:30ean, Izurtzako Azkonizaga jatetxean bazkalduko dute, eta handik Mañariara abiatuko dira, bizaldikoak erakusteko. 18:00etan, erakustaldia Mañaritik Durangoko Andra Maria parera tokialdatuko dute.

Eguna amaitzeko, Artatzako aterpetxera bueltatzen direnean, goizeko lehiaketako sariak banatuko dituzte eta, ondoren, musikagaz girotutako mozorroen lehiaketa egingo dute.

Taldeka, Urkiolara

Domekan, 11:00etan, aurten nobedadea den ekimena gauzatuko dute. Repara Tu Vehiculo tailerraren aurretik, bosteko taldeak osatu eta Urkiolarantz abiatuko dira.



Urtero legez, aurten ere Andra Marian bizaldikoen erakustaldia egingo dute zapatuan. Iban Gorriti

Mañarian ere bizaldikoak ikusteko aukera eskainiko dute bihar arratsaldean

Irteera kronometratua denez, taldeek denbora tarte konkretu baten barruan heldu beharko dute Urkiolara. Ondoren, santutegiaren aurrean berriro bizaldiko guztiak erakutsiko dituzte. Orain bost urte

Bihar goizean Durangaldean zehar ibiliko dira, pistarik pista, altxorra bilatu guran

ekimena lehenengoz antolatu zutenetik, Urkiolara joan barik zeuden; aldi bakoitzean toki bat aukeratzen dute, eta iaz, esaterako, Guggenheimera joan ziren erakustaldia egitera. ■ J.D.

MAÑARIA

Datorren urterako udal aurrekontua onartu dute gobernuko jeltzaleek

760.850 euroko sarrera-irteerak aurreikusten dituzte udalaren diru-kutxan datorren urtean

Amaitzear dagoen urterako aurrekusi zutenagaz alderatuta, %15 handiagoa den diru-kopurua jaso du 2011rako udal aurrekontuak: 760.850 euro guztira. Kopuruaren igoera horretan eragin handiena

Inbertsio errealean, aurtengoagaz alderatuta, %177,5ko igoera 2011rako

inbertsio errealean atalean aurtengo aurrekontuekin alderatuta onartu duten gehikuntzak eragiten du: iaz inbertsioetara 40.000 euro bideratzea aurrekusi zuten udal kontuen taulan, eta 110.971 euroko atala aurrekusi dute 2011rako inbertsioetarako. "Kultur Etxeko bigarren faseko obretara" bideratuko dute kopururik handiena, "igogailua ipini eta obrak amaitzeko".

Bestalde, hainbat gastu murrizteko aurreikuspena ere egin du datorren urterako gobernuak: pertsonal, zerbitzu eta mantenu gastua eta gastu finantzarioa txikitu gura dituzte udalean. ■ I.E.

Egun guztirako egitaraua, txabolaren urteurrenerako

Azaroaren 20an, herriko plazan ipiniko duten karparen inguruan batuko dira herriko eta Durangaldeko talde askoren entsegu lokala den txabolaren hirugarren urteurrena ospatzera. Entseguak txabolaren egiten dituzten Little John and the Howling Diabrus, B.E.K., Trastorno eta Daltondarrak taldeek, esaterako, 17:00etan eskainiko dute kontzertua, eta musika emanaldi gehiago izango da 22:30ean

hasita: Kilauea, Neallta Fola, Plan B, Material Rechazado eta Dirty Akoustik Brothers taldeek joko dute, bihar, Mañarian.

Kontzertuen aurretik, baina, 12:00etako triki-poteoa da urteurrenaren lehenengo hitzordua. Ondoren, 14:00etan, paella-janera batuko dira, eta 16:00etan egingo du Warriors hip-hop taldeak txabolaren III. urteurrenaren lehenengo kontzertua. ■ I.E.

Durangaldeko Baserritarren Elkarteak

DIBA
KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

A. Uireta
pedagogoa

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Alinara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

BERBAZ >

“Herri batek bere toponimoak baditu, ez du zertan beste batzuk hartu”

Hainbat herritarren artean Abadiñoko toponimiari buruzko ikerketa egin dute. Mila Salterain tartean izan da

**Mila Salterain •**

▪ Abadiñarra

▪ Abadiñoko toponimiaren azterketan parte hartu du

horren bila gabiltzalako, pena eta pobrea izango litzateke. Horregaz lotuta, eta zorretan gaudelako, beste artxibo batzuetara jo dugu. Beste iturri batzuk bilatu eta toponimo askoren historiagaz txostena osatu dugu. Liburua argitaratzea proposatuko diogu udalari. Arakatu diren ia iturri dokumental guztiak jaso eta artxiboetako dokumentazio hori argitaratu egin nahi dugu. Ezagutza sozializatzea ikusgarri dago. Parte hartu duten 180 parte-hartzaileekin argazki bat ateratzea proposatu diogu udalari, liburuaren azalean jartzeko. *Abadiñoko Toponimia. Ahozko iturburuak, iturri dokumentalak eta bibliografikoak* deituko litzateke.

Zer toponimoren historia ezagutu duzue?

Jose Anjel Orobiurrutiari esker Eusko Ikasuntzak *Fuentes Documentales del País Vascon* batutako *Colección Documental de Archivo Municipal de Durango* 1989 bildumaren berri izan genuen. Handik zuzenean jaso izan da Erdi Aroko zein banderizoen lekuko izan den Abadiño. Borroka gogorrrak benetan. Kofradien edo auzoen inguruan zelan antolatzen ziren jasotzen dugu. Gainera, lan horretan 16 *kortabasoren* berri izan dugu, baita *ixiru* batzuen berri ere. Beste hainbat historia kontatu daitezke: Abadiñon desagertu diren ermiten berri emateko, Abadiñoa den Felipe Garteren San Trokaz parrokiari buruzko lana erabili dugu.

Noren zuzendaritzapean beharra egin duzue?

Txosten hau Iñaki Gaminderen zuzendaritzapean egin dugu. Hizkuntzalaria eta filologian dokorea da. EHU magisteritza eskolan irakaslea da, eta fonetikari buruz egin zuen bere doktoretza. Txostena Jose Inazio Arrizabalagak irakurri du, eta Arrate Mardarasek ortografiari buruzko zuzenketak egin ditu. Orain Luis Berrizbeitiarekin estilo zuzenketak egin eta beste hutsune asko betetzen nabil. ■ J. G.

A badiñoko toponimiari buruzko lana herritarren iradokizunekin osatzen ibili dira asteon Errota kultur etxean eta Zelaietako mediatekan. Hainbat urtetako lanaren emaitzak, toponimiaren inguruko datuez gainera, informazio historikoa ere batzen du. Mila Salterain da azterketa horretan parte hartu dutenetako bat.

Zelansortuzen proiektua martxan jartzeko asmoa?

Orain 15 urte hasi ginenean, Kere-tetaren fogerazioaren jarraipena egitea gura genuen. Gazteluan hasi ginen; Miriam Uria, Marije Gorrotxategi eta hirurok. Gazteluko jendeak piloa zekien. Galdetegi bat prestatu genuen, eta ez zen etxearen berri bakarrik sartzten. Errentak, arloen izenak, inguruko kanterak, ermitak eta datu pila bat ere bai. Mendiolara, Muntsaratzera, Amaiterminera eta Urkiolara ere joan ginen. Sagasta eta Irazola ere egin genituen, eta azkenik Traña eta Gerediaga egin genituen. Galtzadak eta beste gauza asko atera genituen. Etxean aurkezten ginen, eta bakarrik falta zitzaigun burruntzalia lapikora

sartu eta surtan zegoen janaria egitea. Ondo hartzen gintuzten.

Zeintzuk izan ziren hurrengo pausoak?

Mikel Azkarraga ere gehitu zen horra taldera. Aurten Udalak toponimiako behar bat egiteko asmoa zuen, eta Euskera Batzordean proposatu zuten.

egon *aranean* ikusteko, garrantzitsua da datuak kontrastatzea.

Bildutako datuak zelan antolatu dituzue?

Batuta eta grabatuta zeuden datu guztiak, lehengo mapa kartografikoetakoak, dokumentuetakoak, planoan bertan sartu ditugu. Sailkatu egin ditugu inguruak, erai-

jaso den moduan, ahoz jaso den moduan, Euskaltzaindian aurkeztu eta onartzen denean haren zuzenketekin egindako zerrenda eta Abadiñoko ahoskera.

Abadiñarren ondarea jaso duzue, beraz.

Herritarrek emandako ondarea da erabilgarria, eta erabilia izan dadila. Transmisio lan bat da. 180 herritarrek beste enparau herritarrei ematen dizkigute, eurek jaso duten transmisio kultural baten berri eman eta jarraipena duen gauza bat izan dadin. Oinordekoentzako ahoskera bildu dugu. Herri batek bere toponimoak, bere erreferentziak dituenean, ez du zertan beste batzuk hartu.

Toponimoekin batera euren historia jaso duzue.

Toponimoak huts-hutsik agertzea

“Etxean aurkezten ginen. Burruntzalia lapikora sartu eta surtan zegoen janaria egitea bakarrik falta zitzaigun”

Zelan jaso duzue informazioa?

Abadiñoko ia baserri guztiak bisitatu ditugu, eta ez da gutxi eurek asko dakite-eta. Artxiboetara ere jo dugu. Udalak lana onartu zuzenean, datuak gehiago osatzeko, Arrate Mardaras, Kepa Bengoa, Jose Uria, Jose Ramon Basaguren, Jesus Mari Zubero eta Iñaki Usabel ibili gara.

Datuak kontsultatzeko sasoia da orain.

Arroa (*arrue*) ez dadila egon *gane* batean, eta *montorra* ez daitela

kuntza zibilak, desagertutako toponimoak, ermitak, etxeak (fogerazio hartatik falta dira), eta horri guztiari eusten dio jasotako artxibo dokumental eta bibliografikoak.

Zein da lan honen balioa?

Gainbalioa dauka. 170-180 ahozko iturburu edo informante ditu. 20-25 erreferentzia dokumental eta 30etik gora erreferentzia bibliografiko bildu ditugu. Lau modutara ikusiko da toponimo zerrenda hori. Dokumentuetan

“Herritarrek emandako ondarea da erabilgarria. Eta erabilia izan dadila”



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera. Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko. Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erreategia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriztua. Eguneko menuak. Asteburuko menu bereziak. Karta. Ospakizunetarako menuak: ezkontzak, enpresa bazkariak, ... Aurrekontu guztietarako menuak.

IRITZIA >

Sei hankako mahaia



Idoia Agorria
PSE-EE

Gutunak @

Azaroaren 20tik 27ra, Ezabaketa Astea

Egin eta eragin, biak dira beharrezko herri eskaldunaren bidean. Euskaraz bizitzeko hautua indartu nahi dugunok, euskaraz bizitzeko bidean, egitearekin batera eragin egin behar dugu. Baldintzak sortu behar ditugu aldaketak eman daitezkeen. Maila sozialean, eskaldunon komunitatearen baitan euskaraz bizitzeko hautua indartuz. Maila politikoan, hizkuntza politika burujabea garatzeko herri eskubidea aldarrikatuz. Maila juridikoan, euskaraz gaur egungo menpeko estatusak gainditu eta lehentasunezko estatusa izatea bultzatuz...

Urtero bezala, ezabaketa astea heldu zaigu euskaltzaleoi, kalera ateratzeko. Hizkuntza zapalkuntzaren aurrean, benetako ofizialtasuna aldarrikatu eta euskaraz bizi nahi dugula adierazteko aukera paregabea. Asimilazio prozesua gainditu eta herria berreuskalduntzeko garaia da, beraien tresnak salatu eta alternatibak eraiki behar ditugu. Celaaren irakaskuntza eredu iruzurtiaren aurrean, gazteak euskaldunduko dituen eredu bakarra eta euskalduna; udal-erakundeak, ordenantza egokiak eta betearazleak sortu, euskara plan eragin-korral osatu...

EHEtik dei egiten diegu herritarrei, beraiek ere hizkuntza zapalkuntza agerian uzteko ekimena bultzatu eta bertan parte hartu dezaten. Ziur gara parte hartuko dutela, ekimen horietan zein espontaneoki emango diren beste hainbatetan. Durangon azaroaren 26an, ostiralean, dugu zita: arratsaldeko 18:00etan Andra Maritik hasita lehenengo Olinpiada Ezabatzaileak burutuko ditugu. Ondoren luntxa egongo delarik. Animatu parte hartzera!

Euskaraz bizi

Durangoko EHE

Klik batean @



Semaforoa hesituta

Durangoko Ermodo kalean ondorengo argazkia atera du asteon Anbotoko irakurle batek. Inguruko eraikineko lanen barruan ipini ei dute semaforoa. Auto gidariek seinalea ikusteko gaitz dutela eta kexu agertu da argazkia bidali diguna. Zonaldeko zebra-bideek bisibilitate txarra dutela ere gogorazi du. Dagokionari, arazoa konpondu eta kalea txukuntzeko eskatu du.

Nagusi den hipokresia

Alkatea hizkuntza normalizatzeko plana oztopatzen saiatzen ari da... guri betoa jarriz! Argi azalduko dut. Alkateak galarazi egin dio udaleko euskara teknikariari PSE-EEkoei laguntza eman diezagan, esaterako, udalean mozio edo idazki bat euskaraz aurkeztu nahi dugunean ditugun zalantzak konpontzen edo prestatuta koazuzentzen. Zeruste du, bada? Euskara bere jabetzakoa dela, ala? Udallangileak bere zerbitzurako daudela uste al du? Beste alderdien eta herritarren zerbitzurako ez daudela, alegia? Hainbeste mina egiten al dio guk ere euskarari erabili nahi izateak?

Durangoko sozialistak eraginkortasunez engeiatu gara euskararekin, bultzada eman baitiogu Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari (2009-2012). Horrez gain, Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudiaren aldeko botoa eman dugu, eta gogotsu parte hartu dugu Euskaren Aholku Kontseiluan. Gure ustez, euskara euskal herritar guztien hizkuntza da, eta, beraz, gogor gaitzesten dugu alkatea eta bere udal-taldea hizkuntza horretaz egiten ari diren manipulazioa.

Urteak daramatzagu euskaltzaira egunero-egunero joaten, euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko gai izateko. Euskaldun berri batzuek ondo dakigu zein zaila den euskara zuzen erabiltzea, euskaraz bizitzea, eta bitartean bihotza ez galtzea. Hala ere, gure alkateak izan duen jarreraren moduko kontuak ikusteak bihotza galarazten digu erabat.

Enpresa bat dugu azpikontratatuta, euskarari buruzko gaiekin herritarrei aholkuak emateko. Diru-laguntzak ematen dizkiegu euskarazko aldizkariari. Trebatzaile bat kontratatatu dugu langileei laguntza eman diezaien eguneroko lanean euskara erabiltzean. Udal aurrekontuaren zati handi bat euskararen erabilera sustatzera dago zuzenduta. Hala ere, EAJ-PNVk euskararen alde egiten dituen diskurtsoak ez datoz bat bere ekintzekin. Nagusi den hipokresiaren beste adibide bat.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten ize-nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2010eko azaroaren 19a - 9. urtea - 395 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

DURANGOKO AZOKA > AURKEZPENA

Erotismoa ardatz eta Kurdistan herrialde gonbidatu Azokan

Atzo egin zuten, Landako elkartegian, **abenduaren 4tik 8ra** 45. edizioa ospatuko duen Durangoko Liburu eta Disko Azokaren aurkezpena. Erotismoa hartuko dute gai nagusi aurten, eta Kurdistan izango da herrialde gonbidatua. Haur Literatur Aretoak kokaleku berria dauka: Elkartegira daramate.



Kurduen hizkuntza eta kultura gertutik ezagutzeko aukera eskainiko du, besteak beste, Durangoko Liburu eta Disko Azokak aurten. Kurduerak eta euskarak dituzten erronkei eta adierazpen askatasunari buruzko mahai-inguruak izango dira, esaterako, azoka egunetan Landako erakustazokan: kurduera hutsez argitaratzen duten Azadiya Welat egunkariko zuzendaria etorriko da, tartean, Durangora. Abenduaren 5eko egitarauan, Kurdistanetik etorritako idazle eta musikariek izango dute Landakon protagonismo nagusia.

Kurdueraren eta euskararen erronkei eta adierazpen askatasunari buruzko mahai-inguruak

Durangoko Liburu eta Disko Azokaren abenduaren 4tik 8rako egunetan, Landako Erakustazokako gune askotan izango du Kurdistango kulturak presentzia nabarmena: Euskal Idazleen Elkartek antolatuta, idazle kurduen eta euskaldunen poesia erreztaldia dator jasota egitarauan. Turkia, Irak, Iran, Siria eta Armenia estatuetan zatituta dagoen estaturik gabeko nazio kurduaren kultura, dantza eta kanten bitartez ere herrialde gonbidatua hobeto ezagutzeko aukera eskainiko digute: Espainian bizi diren Zinar Ala eta Siwar Ala aktibistek Kurdistango kanta laburrak eta dantzak erakutsiko dituzte Haur Literatur Aretoan.

Haur Literatura Aretoa, umeentzako txokoa, Landako Elkartegian atonduko dute aurten

Hain justu ere, Haur Literatura Aretoan, umeentzako kokapenean egin du Gerediaga elkarte antolatzaileak aldaketa nabarmenetako bat: Landako Erakustazoka onduko Elkartegia eraikinean atonduko dute umeentzako prestatutako txokoa.

Atzoko aurkezpenean Jon Irazabal Azokako zuzendariak kazetariari galderei erantzunez aipatu zuenez, iazkoagaz alderatuta %30eko murrizketa izan du aurrekon-

tuak aurten; 500.000 euroko aurrekontuagaz antolatu dute. Hala ere, eta egitaraua estutu beharra izan dutela onartu arren, aurreko urteetan arrakasta izan duten ekimenak mantentzeko apustua egin du aurten ere Gerediaga elkarteak. Orain urte bi lehenengoz atondu zutenean bezala, karpn egongo da aurten ere Ahotsenea, sortzaileen gunea: publikoaren aurrean zuzenean eta hurbiletik euren lanak aurkeztuko dituzte idazleek eta musikariek bertan.

Orotara, 505 argitalpen berri aurkituko ditugu Gerediaga elkarteak antolatu duen Liburu eta Disko Azokaren 45. edizioan, Landako Erakustazokan: horietariko 339 liburuak dira, eta 85 diskoak.

Erotismoa gaitzat

Abenduaren 4an, *Maitasunaren arbola* izeneko 12:00etako inaugurazio ekitaldian mahaigaineratuko du Joxemari Carrere idazleak aurtengo azokaren gaia. "Sexu kontuak nola kontatu dituzten lehen eta orain; han eta hemen" hartuko du berbagai.

Gaiagaz lotuta, tailer erotikoa antolatu dute abenduaren 6rako: Erotik Toys jostailu dendako Manex Rekaldek jostailu erotikoen jatorri, ezaugarri eta erabilerak erakutsiko ditu, 19:00etatik aurrera.

Sortzaile bakoitzarengan erotismoak duen lekua berbagai mahai-inguruan

Abenduaren 7an, 18:30ean, bestalde, *Erotismoa sortzaileen begietan* gaitzat hartuta eta Paddy Rekaldek moderatuta, mahai-ingurua burutuko dute Ivan del Campok (zine zuzendaria), Kattalin Minerrek (Queer teoriaren jarraitzailea), Ines Osinagak (GOSE taldeko abeslaria), Edorta Jimenezek (idazlea) eta Jon Aranok (komikilaria).

Hainbat adierazpen artistikotan jarduten duten euskal sortzaileek, bakoitzak bere esparruan erotismoak zer leku daukan hausnartu eta konpartituko dute. ■ I.E.

> Bideoa ikusgai: www.anboto.org



Argizaiola 2010, Imanol Urbietak musikari zarauztarrantzat

Euskararen eta euskal kulturaren alde lan egiten duena goraiatu eta eskertzeko helburuagaz eskaintzen du Argizaiola omen-saria Gerediaga elkarteak Azoka egunetan. Aurten, Imanol Urbietak (Zarautz, 1934) musikari eta musika irakasleak jasoko du saria. Abenduaren 4an, 20:30ean, Durangoko San Agustinen egingo duten 'Gauetan argi' ekitaldian emango dio Gerediaga elkarteak saria Urbietari. Durangoko Atarte kultur elkarteak diseinatu du aurten, gainera, omenaldi ekitaldia.

San Agustingo ekitaldikoaz gainera, "omenaldi digitala" ere jasoko du Urbietak: imanolurbietak.blogspot.com blogean eskuragarri ipini dituzte haren ekarpenak, zabaldu eta gura duen guztiarentzako eskuragarri izateko. Berezi-

ki Durangoko Azokarako sortu da Interneteko aipatu lekua, baina, gerora ere, Imanol Urbietari buruzko informazioaren gune izango da.

Hamabost-hamasei urtegar hasi zen Zarauzko Musika Plazan jaio zen Urbietak bere kanta sortu eta pianoagaz jotzen. Orditik, besteak beste, Ez Dok Amairu taldean parte hartu zuen 60ko hamarkadan -musika moldaketak egin zituen-, eta orduko hainbat abeslari bere musikagaz lagundu zituen: umei zuzendurikoak eta herri kanta bilakatutako asko sortu ditu, eta hezkuntza munduan ere kanten bitartez irakasteko eredu sortu du.

Bizi guztia musikari inguratuta eta jendartea musikara gertuarazteko bideen bila eman du Urbietak.

ZINEMA > ZIKLOA

Euskal Zinemaren Astea: bertan sortutako zinemaren erakusleho

Bost film eta bost dokumental, azaroaren 22tik abenduraren 2ra arteko Berrizko zikloan

Euskal Herriko zinemagileek ekoiztiriko hamar film dira Berrizen azaro amaiera eta abendu hasiera honetan emateko hautatu dituztenak. Azaroaren 22tik abenduaren 2ra, egun

Euskal Herrian azken urtean ekoiztiriko film eta dokumentalen lagina



bakoitzean film bat eskainiko dute Berrizko Kultur Etxean.

Jabi Elortegi zuzendari eta 35 urteko Ainhoa piano-jotzailearen papera egiten duen Anne Igartiburu elorriarra protagonista duen *Zorion perfektua* filmak zabalduko du Berrizko Euskal Zinemaren Astea, azaroaren 22an, 19:00etan. Ondorengo emanaldietan, gizon biren arteko maitasun istorioa kontatzen duen *Ander* eta emigrazioaren errealitateak erakusten dituen *Querida Bamako* izango dira, besteak beste, ikusgai.

Euskal Herrian azken urtean ekoiztiriko zinemaren erakusleho izateko gogoz jaio da Berrizko Zinema Astea; estreinatu berri den *Izarren argia*, *La máquina de pintar nubes*, *Itsasoaren alaba*, *80 egunean*, *Palabras que vienen del mar*, *Sagarren denbor*, eta *Checkpoint rock* film eta dokumentalak ere emango dituzte. ■ I.E.

ANTZERKIA > EMANALDIK

Hil berri den Hodeiren lagun taldea da Artedrama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabu antzerki taldeen elkarlanetik sortutako *Errautsak* antzezlanaren ardatza. Obraren sinopsian jasotzen denez, "XX. mendeko 70eko hamarkadan jaiotako" lagun taldearen, gaztaroa "musikaz, borrokarako leloz, errepresioz, festaz eta orotariko drogaz inguratuta" igaro zuen lagun taldearen urte askoren osteko elkartzeko kontatzen du lanak.

Gazte garai ameslariko lagun egungo argazkia da *Errautsak* lanaren mamia, sei pertsonaiak emana; Ander Lipus markinarra da aktoreetako bat. Gordintasuna, umorea, antzezleen lana eta Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolari durangarren berben ukitua dira azaroaren 1ean Luhosen estreinatu zuten *Errautsak* antzezlanaren osagai nabarmenak.

Datorren asteburuan, azaroaren 25ean 20:00etan, Zornotza Aretoan, 26an 22:00etan Elorrioko Arriolan eta azaroaren 27an, 20:00etan, Durangoko San Agustinen izango da ikusgai.

'Errautsak' antzezlanaren gozatzeko hiru aukera Durangaldeko aretoetan

Azaroaren 25, 26 eta 27an ikusgai dugu taulara igoko diren sei aktoreek Elortza eta Iturriagaz idatzitako lana

Lagunaren hiletan batuko dira gaztetan koadrila osatu zuten sei lagun

"Lagunaren heriotzak eragin-dako saminagaz eta berriz elkartzeko emozioagaz, garai bateko festa basati bihurtuko da lagunaren agurra", iraganeko "gau ero" haietariko bat berpiztuz. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA

Miren Amuriza
bertsolaria



Atzekoz aurrera

Akorduan daukat zortzi-bederatzi urteagaz bertso idatziak egiten ikasi genduenean, aldrebeskeria hutsa begitandu jatala azkenetik hasia.

Ordura arte, irakurritako ipuin guztiak "*Bazen behin...*" esanaz hasten genduzen, eta "*Hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan*"-ekin bukatu.

Zortziko txikietan, ostera, hasieratik kalabazak eskue-tan hartuta abiatu behar zen bertsoa. Denborarekin ohi-tzen joan naz, eta gaur egun berez-berez egiten dodala esango neuke. Baina ez bertsoan bakarrik; egunkariak atzekoz aurrera, edo hasi orduko nobelaren azken esaldia irakurtzen dabezenetakoa naz.

7-6, 7-6 neurritik 1.400 karakterera jauzi egitean be, behetik gorako bideari jarraitzen deusat.

Baina batzuetan, "Hau Anboton idatzi bijonat" sarri pentsatu arren, beste hainbatetan pantailaren aurrean jarri eta ez da ezer etortzen.

Oholtza gainean be, horixe izaten da unerik estuena: plaza isilik, segunduak aurrera, eta ezer okurritzen ez; entzuleren batek ez tul egin, eta norbera mutu oraindik.

Zutabegintzara itzuliz, hamaika hariri egin geinkio tira: Internet, egunkariak, efemerideak... Baina Google-en galdu egiten naz, eta sasi-demokrazia garaiotan Francoren heriotzaren urteurrenari buruz idazteari beltzegia derizot.

Beraz, parkatuko deustazue kulturaren gaineko nobedade handirik kontatu ez badeutsuet, baina oraingo honetan, azken puntua pentsatu barik hasi naz; umetan lez.

Eta hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan!

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

Javier Fernándezen irudiak Errota kultur etxean ikusgai

Gurutze Gorria elkarreagaz lankidetzan antolatu du bere argazki erakusketak Javier Fernández kazaritari eta argazkilaria abadiñarrak. Errota kultur etxean, azaroaren 22tik abenduaren 3ra arte izango dira lanak erakusketan ikusgai.

Xake jokoaren irudiak jasotzen dituzten zuri-beltzeko hamabost argazki dira *Proyecto derechos* izeneko erakusketarako Fernándezek osatu dituenak. Erakusketako

argazkiak, gainera, 50 euroan salgai izango dira; salmentatik lortutako irabazien erdia Gurutze Gorriak bere proiektuetarako baliatu dezan emango du egileak.

Arazakeria edo genero indarkeria lako bidegabekeriak salatzen ditu irudien bitartez Fernándezek. Argazki bakoitzaren alboan, irudi bakoitzaren "mezua ulerterrazago" egiten duten hainbat aipu ere ipini ditu egileak. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

AZAROAK 19 22:00etan
OREKA TX + IBAN NIKOLAI
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10euro.

AZAROAK 20 19:00etan
AIKO ERROMERIA
DANTZALDI IBILTARIA. Sarrera doan.

AZAROAK 25 20:00etan
XABI BANDINI (Kerobia). KANTUAREN KANTOIA
BERBALDI MUSIKATUA. Sarrera doan.

AZAROAK 26 22:00etan
ARMY-ARMA + GALSENE WARRIORZ
KONTZERTUA. Sarrera doan.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

EL CLUB DE LAS MUJERES INVISIBLES
Vaivén Producciones (Donostia)
Azaroak 20 • 20:00etan

OTTO
Elirale Dantza Taldea (Lapurdi)
Azaroak 21 • 18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

11.94 601 07 76

HITZ

Liburudenda

45. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



“Ez dut imajinatzen Durango Azoka barik, ezta Azoka Durango barik ere”

Aurtengo Azokaren gaia erotismoa da. Josu Unzueta durangarra irakasle da ofizioz, eta afizioetako bat idaztea du. ‘Txistu y Tamboliñ’ blogean argitaratzen ditu bere lantxoak. Bestetik, Basauriko Euskarabila elkarteak antolatzen duen Ipuin Erotikoen Sariketa irabazi du aurtengoa.



Nola otu zitzaizun ipuin erotikoen sariketara zure lana aurkeztea?
Lehiaketetara lanak behin baino gehiagotan bidali izan ditut. Sari-keta konkretu horretarako iaz ere idatzi nuen zozortxo, baina orduan ez nuen zortzerik izan. Beharbada, lan hark orain saritu dutenak baino gehiago zuen erotikotasunetik. Oraingoan, finago agertzen saiatu naiz. Nik esango nuke, berez ez

“Nik esango nuke, berez ez dela ipuin erotikoa.
Baina badu, bai, pasarte erotikorik”

dela ipuin erotikoa. Baina badu, bai, pasarte erotikorik.

Zeri buruzkoa da ipuina?
Enteratu nintzen aspaldiko lagun bat minbiziak jota hil zela. Hor hasi nintzen hausnartzen adiskidetasunagaz zer gertatzen den. Denboragaz urrundu egiten gara. Horren hausnarketa planteatu dut. Adin bategaz gizarretik zelan urruntzen

garen, pipertzen garen... Protagonistak gaztaroko lagunak gogoratzen ditu: heroinak jota zelan batzuk hil diren, unibertsitate sasoiko neska-lagun bat... eta une horretan pasarte erotikoa txertatu nuen.

Hau ez da irabazi duzun sari bakarra.

Ez. Durangoko Udalak urteak daramatza Julene Azpeitia ipuin sariketa antolatzen, eta aurtengoa aurkeztu dudana lana saritu dute.

Idazteko afizioa nondik datorkizu?

Uste dut idaztea beti gustatu izan zaidala. Baina, batez ere, lagunartean *Txistu y Tamboliñ* aldizkarian piztu zitzaidan idazteko grina.

“Gaztetan, katxondeoan, ‘Z-dunen inbasioa badator’ esaten genuen”

‘Txistu y Tamboliñ’ sasoi batean erreferentzia aldizkari bihurtu zen...

Ezzen izan kosta bakoa, gero! Aldizkari ganberroa zen gurea. Pape-rean argitaratu genituen zazpi ale, eta gero etena izan genuen. Bada-kizu... lana, familia... Baina 2000. urte inguruan berriro elkartu eta sarean argitaratzen hasi ginen. Hor ere bi fase izan ditugu. Beste sei bat kaleratu genituen webgunean. Eta azkenaldian, blog sistemara jo dugu. (www.blogak.com/txistuytambolin) Erabilterrazagoa da guretzat. Paperezko aldizkariak ere sarean daude eskuratu gura dituenarentzat. *Armiarma.com* literaturaren sareko aldizkariaren gordailuan hainbat eta hainbat aldizkari daude, hantxe dago gurea ere.

Liburu bat be argitaratu duzu.

Orain dela 20 urteko kontua da, eta hor ere zortea izan nuen. Elkarre-koei bidali nizkien nire testu labur batzuk, gustatu egin zitzaizkien eta *Gauerokoak* argitaratu zuten. Gaur egun, oso gaitza da idazten duen bati horrela ezer argitaratzea.

Eta orain zertan zabilta?

Idazten jarraitzen dut. Baina gure blogean. Testu laburretan berezitu naiz, batez ere. Mikro-ipuina, buru-tazioak... Ez dut uste paper forma-tura bueltatuko naizenik berriro. Blogean idazteak, gainera, mundu osoan irakurtzeko aukera ematen du.

Idazlea, durangarra... Durangoko Azoka berezia izango da, ba, zuretzat.

Azoka beti lotu dut lagunarteko harremanarekin. Esaterako, *Txistu y Tamboliñ*ekoak urtean birritan elkartzeko gara, eta horietako bat Azokan izaten da. Gaztetan, katxondeoan “Z-dunen inbasioa badator” esaten genuen. Aldizkaria ezagutzera emateko ere, behin, tren geltokian performance antzeko bat egin genuen.

Azokan liburuak ikusi ala erosi?

Biak, baina gehiago esango nuke ikusi egiten dugula. Eta ikusi ez bakarririk liburuak, diskoak eta lehen esandakoa jendea. Uste dut Azokak Durangora jendea erakartzen duela aspaldiko ezagunak ikusteko lekua bihurtu delako.

Imajinatzen duzu Durango Azoka barik?

Ez, ez dut imajinatzen Durango Azoka barik, ezta Azoka Durango barik ere. Durangon daukagun gertaerarik inportanteena da, eta eutsi egin behar zaio horri. Gainera, las-ter berriro txiki geratu dela esaten hasi beharko dugu...

www.durangokoazoka.com
www.gerediaga.com



Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka

2010eko abenduaren 4tik 8ra

DANBAKA >

Rocka, punka eta metala nagusi Danbakaren hirugarren emanaldian

Doctors Klub, Rombos Negros, Karpovian Projekt eta Ez! igoko dira Espaloiko oholtzara

Danbakako IV. edizioak aurrera segitzen du. Gaur, barikua, gauean musika kontzertuak izango dira Elgetako Espaloia kafe antzokian. Oraingoan, honako talde hauek igoko dira agertoki gainera: Abadiño eta Durangoko Doctors Klub, Bergarako Rombos Negros, Mutrikuko Karpovian Projekt eta Oñatiko Ez!

Ohikoa den moduan, 22:30ean hasiko da musika emanaldia. Bizkaitarrak izango dira jotzen lehenak. Rock musika taularatuko du boskoteak, euskaraz eta ingelesez egindako kanten bidez. Jarraian, punk-rockaren txanda iritsiko da, Rombos Negros hirukote bergararraren eskutik. Mutrikuko Karpovian Projektoek, ostera, rock-metal progresiboa eskainiko diete Espaloira doazenei. Eta amaitzeko, Oñatiko Ez! taldekoak igoko dira agertoki gainera.

Tatuaje-bonu bat zotz

Gainera, Espaloian batzen direnen artean saria zozketatuko dute. Arrasateko Ganesha tatuaje-dendako tatuaje-bonu bat irabaziko du Danbaka lehiaketako zale batek. Zozketa Karpovian Projekt eta Ez! taldeen emanaldien artean egiteko asmoa dute.



DOCTORS KLUB | Abadiño - Durango

Abadiño eta Durangoko Iraultzak, Jonkolek, Ehiarrek, Aritzek eta Urtzik osatzen dute Doctors Klub taldea. Orain dela bi urteko udan elkartu ziren Aritz eta Urtzi lehenengoz Tabira parkean, ilargipean inprobisatzeko asmoz. Bi abesti eginda zituztela, Iraultza batu zitzaizen erritmo psikodelikoekin baterian, eta Jonkol punteatze hiltzaileekin. Azkenik, Ehiar sartu zen taldera. 2009an euskaraz eta ingelesez abestutako zortzi kantu grabatu zituzten euren kontura lokalean.



KARPOVIAN PROJEKT | Mutriku

Rock-metal progresiboa egiten duen taldea da Karpovian Projekt. Zenbait kidek elkarrekin aspalditik jotzen badute ere, 2008ko abuztura arte ez zen elkartu gaur egun taldea osatzen duen boskotea: hain justu ere, Beñat (ahotsa), Aner (gitarra), Iker (gitarra), Iñaki (baxua) eta Aymar (bateria). Euskaraz abesten duen talde horrek Mutrikuko Udalaren lokaletan entseatzeko du.



ROMBOS NEGROS | Bergara

Rombos Negros hirukotea 2004ko udaberrian sortu zen. Navak (gitarra eta ahotsa) eta Emborujok (bateria) jarri zuten proiektua martxan, Gasteizen. Handik hilabete gutxira, Bergarako Mikel (baxua) sartu zen. Punk-rock musika egiten dute eta gaztelaniaz abesten dute. Hirukote horrek ez du gaur egungo gizarte edo politikaz jarduten; bizitzan zehar pasatutakoekin egiten dituzte abestiak, eta horiei originaltasun ukitua ematen saiatzen dira.



EZ! | Oñati

Rock estiloko talde hori 2007ko irailean sortu zen. Honako hauek osatzen dute: Lasa, Mikel, Beñat eta Josuk. Lehenengo kontzertua Arrasateko Gure Leku tabernan eskaini zuen laukoteak eta orduz geroztik 20 kontzertu inguru eman ditu inguruko herrietan. Laster, Lorentzo Recordsera joango dira, Berrizko estudioa, Aitor Ariñorekin diskoa grabatzera.

KONTZERTUA

Gaur, barikua, 22:30.

Elgetako Espaloia.

5 euro (Gazteketxa, 3 euro).

- > Doctors Klub
- > Rombos Negros
- > Karpovian Projekt
- > Ez!

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



AZAROAK 25

**Emakumeen aurkako indarkeriaren
kontrako nazioarteko eguna**



**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO
ZERBITZUA**



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

Tel.: 94 620 04 92



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Sexualitateaz hausnartu eta berba egiteko tailer gaztea

Tailer dinamiko eta parte-hartzailean elkartzen dira neska berriztarrok; sexualitateari buruz berba egin eta adimen emozionala lantzen dute, lagunartean. Lahiria sexologia taldeko **Eider** tailerraren gidariak azaldu dizkigu nondik norakoak.



Eider tailerraren dinamizatzailea erdian, gida prestatzen diharduten neska berriztarrekin.

Zelan sortu zen tailerra?

Iazko ikasturtean jaio zen tailerra. Neska gazte batzuek sexualitatearen inguruan tailer bat egiteko eskatu zuten, eta berdintasun teknikariak niri deitu zidan. Tailerrera apuntatu ziren neskekin, talde bi osatu genituen; DBHko lehenengo eta bigarren mailako neskekin talde bat, eta hirugarren mailakoekin bes-

tea. Ordu eta erdiko zortzi saio egin genituen. Sexualitate kontzeptua, fisiologia, jarrera erotofilikoa, autoestimua eta edertasun ereduak, plazerra, sexu jokabideak, arriskuak, prebentzio metodoak, sexismo erak eta emakumeen kontrako indarkeria lako gaiak landu genituen. Tailerrean parte hartu zuten nesken erantzun ona ikusita,

“Jokaera sexistak identifikatu ditzaten gertuko adibideak lantzen ditugu”

aurten neska nerabeek euren adineko neskenz egindako sexualitate eta indarkeria sexistari buruzko gida bat prestatzen dihardugu. Aurreko ikasturtean tailerrean parte hartu zutenetarikoa lau neskek dihardute gida prestatzeko lan horretan.

tan, bai sexu berekoekin bai beste sexukoekin dituzten jokaeretan sexismoa identifikatzen dutenean, ez zaie arrotza egiten. Gizarte sexistata batean bizi gara, eta adin tarte bakoitzean era batera bizi da sexismoa.

Zelan lantzen duzue tratu txarren gaia nerabeekin?

Tratu txarrak euren egunerokotasunera gerturatzen ahalgintzen gara. Ez dugu ezkondu eta seme-alabak dituzten emakume edo bikoteetaz berba egiten; daukaten adinagaz ez dira horregaz identifikatzen. Euren egunerokotasunean bizi edo ikusi ditzaketzen jokabide sexistak eta diskriminazioak identifikatzen ditugu.

Zelan erantzuten dute gazteek?

Oso ona izaten da euren erantzuna. Gai hau euren errealitatera hurbiltzean, euren bizitzako arazo moduan ikusten dute, eta interes handia erakusten dute gaiagaz. Euren adinera egokitutako adibideak ematen dizkiegunean identifikatu egiten dira, eta euren inguruan (lagunengan, familian...) gertatzen diren diskriminazio egoerak ikusten dituzte. Oso inplikazio maila handia lortzen dugu.

Zerbait oso urruneko moduan bizi dute tratu txarren gaia?

Ez dira gizartean tratu txarrei buruz dugun irudiagaz identifikatzen. Tratu txarrak euren errealitatera gerturatzeko dituzten telesailetan edo entzuten dituzten abestie-

Azaroaren 25eko ekitaldietan parte hartuko dute tailerrean jardun duten gazteek?

Bai, Bilboko Beldur Barik jaialdira joateko asmoa dute taldeko neskek, eta euren aportazioa prestatzen dabil-tzan gida izango da.

Emakumeenganako indarkeriarik EZ

Azaroak 20

GRAFFITI TAILERRA
Probalekuan 16:00etan

"ODOL MALKOAK" - Antzerkia
Kultur Etxe 20:00
Euskera
Sarrera: 5,00 €

Azaroak 23

ZIPRIZTINTZEN
ERMUKO GIZON TALDEA / Grupo de hombres de Ermua
Bere ibilbidea aurkeztuko dau jendaurrean: nola hasi ziren elkartzen, zertarako, helburuak, Larpenak ...
Kultur Etxean 18:00etan

Azaroak 25

KONTZENTRAZIOA ETA ANTZERKI SKETXA
Urriaga Plazan 19:00etan

Azaroak 27

I. FESTIVAL BELDUR BARIK!! ADIERAZI I. JAIALDIA
Beldur Barik!! Adierazi I. Jaialdia Bilbon
Tailerrak, eztabaida mahaiak, musika, artea, bertsoak, eta 22:00etan EUTSI taldearen kontzertua
Autobuserako izena emateko:
www.beldurbarik.org - www.berriak.org

Abenduak 10

LAS GARAIPEN
Gipuzkoako emakume taldea; bertan jaiotakoak eta kanpotik etorritako emakumeak elkarlanean, emakumeenganako indarkeriaren aurka eta emakumeen lidergoagatik. Nola antolatu ziren, helburuak....
Kultur Etxean 16:00etan

Solasaldia, antzerkia eta graffiti tailerra

Graffiti tailerra eta antzerki emanaldia bihar, eta berbaldia azaroaren 23an

Azaroaren 20an, bihar, arratsaldean graffiti tailerra eta iluntzean antzerki emanaldia izango dira azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunerako Berriztarren antolatutako programaren abiapuntua. Esandako moduan, bihar, azaroaren 20an, Garikoitz Arregi graffitigile berriztarren eskutik izango da hormairudia egiten ikusi eta ikasteko hitzordua, 16:00etan.

Ondoren, bihar hau ere, baina iluntzean, Kultur Etxean izango da antzerki emanaldia,

20:00etan. Ondarroako Traman eta Brix eta Txo! antzerki taldeek eta Garazi Etxaburu dantzariak elkarlanean Berrizko emanaldirako prestatutako *Odol malkoak* obra izango da ikusgai.

Zipriztintzen taldea

Berdintasunaren aldeko gizonen elkarlanean Zipriztintzen, 2008an Ermuan sortutakoa. Emakumeen kontrako biolentzia guztion arazoa dela oharturik eratu zuten taldea, eta euren esperientziaren gaineko berbaldia eskainiko dute azaroaren 23an, Kultur Etxean.

“Jarrera sexistak transmititzen ditugu, konturatu barik bada ere”

Elorrioko berdintasun teknikari Maitane Iribarregaz egon gara berbetan Elorrion antolatutako ekintzez eta indarkeria matxistaren kontrako lanari buruz

Zer prestatu duzue azaroaren 25erako? Herritarrak gai honekiko sentsibilizatu gura ditugu. Puntu morea erabiltzera animatzen ditugu herritarrak, postontzietan banatuko dira horretarako posterrak. *Izarren argia* filma eman genuen aurreko asteburuan, eta eguenean ez ohiko plenoa izango da. Jarraian plazan kontzentrazio isila eta ondoren Iturrin dokumentala emango da. Herritar guztiei luzatzen diegu deia kontzentrazio isilean parte hartu deza-

“ Sexismoa amaitzen denean amaituko da indarkeria matxista ”

ten. Elorri Lore elkarteak zine foruma antolatu du egun horretarako, *Frozen River* pelikulagaz; 16:00etan hasiko da Iturri kultur etxean.

Bestalde, erkidego mailan, Beldur Barik kanpainan parte hartzen gabilta, eta azaroaren 27an Bilbon egingo den jaialdian parte hartzera animatzen zaituztegu. Informazioa gehiago www.beldurbarik.org helbidean dago.

Beldur Barik lemagaz zer nabarmendu gura izan duzue?

Emakumeok aske bizitzeko dugun eskubidea eta gizonekiko aukera berdintasuna aldarrikatzen ditugu. Indarkeria amaituko da sexismoa desagerrarazten dugunean; hori da

indarkeria matxistaren atzean dagoena. Emakumeon askatasuna, mugimendu eta ekintza askatasuna ezinbestekoak dira. Emakumeei esan behar zaie, gazte zein helduei, euren bizitza nahi duten bezala bizitzeko eskubidea dutela, eta ez kikitzeko indarkeriaren aurrean.

Gazteengan eragitea garrantzitsua dela ikusten duzu?

Ezinbestekoa da ume eta nerabeengan eragitea, etorkizunean pentsatzea baita, prebentzioan. Hori bai, kontuan izan helduok hezten ditugula gure umeak, beraz, guk portatzen matxistak baditugu, inkontzienteki bada ere, jarrera sexistak transmititzen ditugula. Guztiok hausnartu behar dugu gure matxismoaren gainean, eta autokritikoak izan.

Berdintasun Sailekook urte osoan zehar landu duzue indarkeria. Zelan?

Batetik prebentzioan eta bestetik arreta eta laguntza baliabide eta zerbitzuak hobetzen, eta herritarrei zerbitzu hauen berri ematen. Horregaz batera, baita profesionalak trebatzen ere, behar duenari arreta hobea eman diezaiozun guztion artean.

Prebentzioan, duela 6 urtetik hona, ikastetxeetan nerabeei zuzenduriko Tratu Onen Programa dugu martxan, nerabeentzat indarkeriari aurre egiteko gidak banatzen ari gara, autodefentsa feministako tailerrak antolatzen ditugu, baita bikote harreman parekideei buruzkoak, hiri debekatuaren mapa egin genuen... Azken batean, indarkeria desagerrarazteko parekidetasuna



bilatzen duten ekintza guztiak baliagarriak izango dira.

“ Ezin dugu egon zain, indarkeria noiz desagertuko; ekin egin behar diogu ”

Etorkizunera begira, baikorra zara? Kosta egingo da mundu mailan sakon errotutako arazoa delako, baina emakumeok ez dugu etsiko. Ezin dugu zain egon indarkeria noiz desagertuko; geuk hasi behar dugu indarkeriari aurre egiten, beldur barik. Emakumeak gai gara gure burua babesteko eta indarkeria egoeretatik irtetzeko. Trebatzen bagara, eta sakoneko arazoiei helitzen badiegu, lortuko dugu.

“ Indarkeriaren kontra trebatu eta sakoneko arazoiei heldu behar diegu ”

Erakundeek prebentzio eta arreta politika eraginkorrak garatu behar dituzte, mugimendu feministak baliabideak eskatzen jarraitu behar du, eta guztiok sentsazionalismoa baztertu eta benetan gaiaren mamian zentratu behar dugu, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunean baitago indarkeria matxistaren sustraia.

AZAROAK 25



Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna

Elorrioko udala



AZAROAK

25

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna

EMAKUMEEN
AURKAKO
INDARKERIARI
EZ**LARUNBATA 20****ANTZERKIA-MUSIKA. "EL CLUB DE LA MUJERES INVISIBLES"** Vaivén Producciones (Donostia)**Tokia:** San Agustín Kultur Gunea. **Ordua:** 20:00. **Hizkuntza:** gaztelania**Sarrera: 10 euro** (%25eko deskontua San Agustineko kideentzat eta 10 pertsona baino gehiago diren taldeentzat (Andragunean eman behar dute izena))**ASTEARTEA 23****AZAROAK 25 III. LEHIAKETA.** Emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkiak
SARI BANAKETA Producciones (Donostia). **Tokia:** Pinondo Etxea. **Ordua:** 18:30.**OSTEGUNA 25****KONTZENTRAZIOA.** Durangoko Udalak, Durangoko Berdintasunerako Udal Kontseiluak deitutako kontzentrazioan parte hartzera animatzen zaitu. **Tokia:** Udaletxeko plazan. **Ordua:** 12:30.**TXALAPARTA EMANALDIA.** Ttukunak. www.ttukunak.com **Tokia:** Andra Mari. **Ordua:** 20:00.**MANIFESTAZIOA.** Durangoko Udalak, Durangoko Plataforma Feministak antolatutako manifestazioan parte hartzera animatzen zaitu. **Tokia:** Andra Maria. **Ordua:** 20:15.**LARUNBATA 27****"BELDUR BARIK" I. JAIALDIA.** Arte erakusketak, Musika, Eztabaidak, Sariak, Tailerrak, eta abar.**Tokia:** Zabalguneko Azokan (Zabalgune Plazan) Bilbon. **Ordua:** goizeko 11:00etan.**Info.osagarria euskaraz****Info gehiago:** www.beldurbarik.com

Berdintasun Kontseilua parte-hartzaile berriekin

Saioa Segura eta Eider Jimenez ilusioz hasi dira Durangoko Berdintasun Kontseiluan beharrean. Aukera berdintasunean zeregin handia dagoela egiteko gogoratu digute



Durangoko Berdintasun Kontseiluak urteko egun guztietan gogoan dauka emakumeenganako indarkeria. Kontseilu honetan partaide berri bi ditugu: Saioa eta Iratxe.

Zelanekin diozue kontseiluan parte hartzeari?

Gizarte Hezkuntza ikasketak amaitzerakoan ezagutza gehiago izateko ikastaroak egiteari ekin genion. Ermuko emakumearen etxeagaz hartu-emanetan jarri ginen, eta zeukaten ikastaro eskaintzak harritu egin gintuen. Durangon emakumearen etxerik oraindik egon ez arren, eskaintza formatibo interesgarria zeukaten. Andragunea

dagoen lekuan egin genuen lehenengo ikastaroa *Lidertza eta talde-lana* izan zen. Emakumearen etxea antolatu zutenean bertako ardura-dunekin hartu-emanetangeunden, eta duela hilabete batzuetatik Berdintasun Kontseiluan parte-hartzea erabaki genuen.

Zeintzuk dira helburuak?

Helburuak azaldu aurretik, Berdintasun Kontseilua emakumeen parte-hartze demokratikoa bultzatzeko sortu zela nabarmendu nahiko genuke, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasun printzipioa arlo ekonomiko, politiko, kultural eta sozialean garatu eta sustatuz. Gainerako helburuak anitzak dira: ber-

dintasun baloreak bultzatzea sexu diskriminaziorik barik; elkartegintza bultzatzea, batez ere, emakume eta gizonen aukera berdintasuna helburu dutenen integrazioagaz; udal politika eta zerbitzuek aukera berdintasuna bermatzen dutela ziurtatzea; jatorri, etnia, minusba-

Emakumeen parte-hartze demokratikoa bultzatu gura dute

liotasun, lanbide edo sexu orientazioagatik baztertuta egon daitezkeen emakumeen aukera berdintasuna bermatzea; administrazioari berdintasun politikak proposatzea... horiek eta beste hainbat dira lantzen ari garen helburuak.

Nortzuek osatzen duzue Berdintasun Kontseilua?

Durangoko Udaleko berdintasun teknikariak, alderdi politiko eta elkarrekin ordezkariek, Durangoko Emakumearen Sustapenerako Zentroak, fundazio batek eta maila indibidualean hiru lagunek (horietako bigu gara) osatzen dugu.

Zer jarduera antolatzen duzue?

Kontseiluan gaudenetik, sortu berri dugun Berdintasun Planean jardun dugu. Sanfaustoetako jai egitarauan genero ikuspuntua zelan kontuan hartu daitekeen azaltzeko gure aporterazioa egin dugu, intereseko beste gai batzuk ere landu ditugu, kontseiluak egin ditzakeen beste aporterazio batzuk ere jorratu ditugu.

Noiztik dago kontseilua martxan?

Durangoko Udal Kontseiluaren Erreglamendua 2005eko maiatzaren 26ko udalbatzarrean onartu zuten. Ekimena ezagutzera eman eta parte-hartzaileak gertu izan zirenean, urte horretako azaroan, lehenengo batzarra egin zuten.

Zer antolatzeko asmoa duzue azaroaren 25erako?

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa labor eta olerkien III. lehiaketa antolatu dugu. Kontseiluak elkarretaratzea deitu du; txalaparta kontzertua Andra Marian arratsaldean izango da eta ondoren manifestazioa irtengo da. Dendetan puntu liladun biniloak banatuko ditugu. 'Beldurbarik' jaialdira azaroaren 27an Bilbora joateko deia ere egin gura genuke. Azpimarratzekoa da azaroaren 25erako ekitaldi hauek antolatu arren, ema-

kumeenganako indarkeria ez dugula ahazten eta Andreak elkarrekin eguenero elkarretaratzea antolatzen duela ere, 20:00etan, Andra Marian.

Genero indarkeriaren inguruan Durangoko daturik baduzue?

Daukagun informazioaren arabera, jakin dezakegu Durangoko Ertzain Etxean Durangoko emakumeek 2009an bederatziz salaketa jarri zituztela etxeko indarkeriagatik, eta 33 genero biolentziagatik. Aurtengoari dagokionez, esan dezakegu 2010eko urriaren 19ra arte etxeko biolentziagatik hamar emakume salaketa jarri dutela eta 17k genero indarkeriagatik.

Andreak elkarrekin eguenero antolatzen ditu elkarretaratzeak

Durangon bere senarrak emakume bat hil zuenetik herrian arazo honen aurrean beste jarrerabatekarrri zuela deritzozue?

Tamalez, zeozer gertu bizi arte ez zara errealitateaz ohartzen. Beraz, gertaera hark Durangon eragina izan zuen, herritar guztiok tragedia hura gogoratzen dugulako, eta eguneroko borrokagaz berriro gertatu ez dadila itxaroten dugu.

Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako pisu bat ere jarri du udalak. Ekimenari garrantzitsua deritzozue kontseiluan?

Pisu hauek garrantzia handia dute, erakusten dutelako gure herriak emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa eta erradikazioa kontuan hartzen dituela, babesa eta arreta eskainiz. Pisu hauek duten helburua tratu txarrak jasan dituztenei harrera eta babesa ematea da, bizi duten egoeragatik beraien etxea utzi behar izaten dutelako.

Arrerapausoak eman direla deritzozue?

Berboragaz lan handia egin da emakumeenganako indarkeria kondenatzen. Giza eskubideen kontzientziazioan ere behar handia egin da. Emakumeek lan pertsonala egin dute lehenik, eta gero bildu egin dira gizartera zabaltzeko.

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen duen ekitaldi ugari Durangon

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira aste osoan zehar ekitaldiak antolatu dituzte Durangon. Vaivén produccionesek *El club de las mujeres invisibles* antzezlan eskainiko du zapatuan, 20:00etan, San Agustín kulturetxuan. Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako kontaketa labor eta olerkien III. lehiaketaren sari banaketa datorren martitzenean, azaroaren 23an, Pinondo Etxean antolatuko dute. Kontzentrazioa ere deitu dute

Durangoko Udalak eta Berdintasun Kontseiluak, azaroaren 25ean, 12:30etan, Udaletxeko plazan. Tutukunak taldeak txalaparta emanaldia eskainiko du 20:00etan Andra Marian. Udalak eta Bilgune Feministak deitutako manifestazioa 20:15ean irtengo da.

Berdinsareak Bilboko Zabalguneko Azokan (Zabalgune plazan) azaroaren 27an, goizeko 11:00etan, antolatutako I. Beldur Barik jaialdian arte erakusketak, musika, eztabaidak, sariak, tailerak... antolatuko dituzte. ■ J. G.

Vaiven taldeak 'El club de las mujeres invisibles' eskainiko du



Gremioen gida



Iturgintza

Arriandi ITURGINTZA

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Arriandi, 16 - behe, 3 atea
Sakelakoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
Iurreta

Baimendun
Instalatuzailea

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telebés
Instalatuzaile
Ofiziala

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

ARGITATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behe
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Eraikuntza

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B DURANGO Sakelekoa: 615 77 91 70
605 77 03 57

Urtiaga

greioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Arotzeria

EGUIA S.L.

AROZTEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Ubide

iturgintza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Garbiketak

AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietia, 46 - 2 esk - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

- TIC aholkularitza
- Ekipamendu hornikuntza (kontsumigarriak)
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantenimendua
- Formazioa
- LOPD/LSSI adaptazioa

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

sagasta

ITURGINTZA

Iñaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

KIROLAK >

“Oraindik ez dut guztiz asimilatu aurten gertatu zaidan guztia”



Igor Urien hain emaitza onak ekarri dizkion barquetaren ondoan, Traña-Matienan daukaten tailerlean.

Igor Urienek (15 urte, Abadiño) bigarren amaitu du prototipoen CM Sport Espainiako Txapelketa. Joan zen asteburuan irabazi egin zuen, Montmellóko azkeneko lasterketan. Iaz arte kart-etan ibili den arren, aurten bikain moldatu da eskakizun berrietara.

Zelan joan zen Montmellóko lasterketa?

Lasterketako irteerako postua erabakitzeke lehian lehenengo geratu nintzen, Xabi Domenechen aurretik. Ondoren, lasterketako txanda bietan irabaztea lortu nuen.

Txapelketan zehar puntu gehien batu badituzu ere, ez zara txapeldun geratu.

Ez. Pilotu guztiek puntuaketatik lasterketa bat kendu behar dute. Domenech-ek punturik batu ez zuen bat kendu zuen eta nik, lasterketa denetan puntuatu dudanez, horietako bat kendu behar izan nuen. Ondorioz, Domenech aurretik geratu da.

Penatxoak geratu zaizu?

Egia esanda, bai. Ez dut esango ernegatu nintzenik, ez da hori ere, baina pozagaz batera sentzazio gazi-goza samarra geratu zitzaidan.

Dena dela, lasterketa denetan podiumean egon zara, eta horietako lau irabazi dituzu.

Alde horretatik oso gustura nago. Ez gunden inondik inora

uste hain goian ibiliko ginenik. Gure denboraldi hasierako helburua apurka ikasten joatea zen.

Iaz arte kart-etan ibili zara. Aurten barquetta hori aurrean ipini zizutenean zer pentsatu zenuen?

Printzipioz, aitak berak gidatzeko erosi zuen barquetta hori. Nik noizean behin erabiltzen nuen, baina ez txapelketari begira; probatzearen bakarrik.

Guraso, babesle eta musutruk laguntzen dabilzan guztiekin esker oneko nago

Zergatik hartu zenuten saltoa emateko erabakia?

Karting denboraldia ondo joan zen; maila itzela dago eta hamargarren amaitu nuen. Beraz, CMagaz lasterketa bat korritzea erabaki gunden, probatzearen, eta errendimendua-

gaz gustura geratu ginenez, jarraitzea erabaki gunden.

Imajinatzen dut gauetik egunerako aldea egongo dela modalitate bien artean.

Oinarri-oinarritik hasita, orain hiru pedal kontrolatu behar ditut. Dimentsioetan ere ez dago konparaziorik, eta abiadura zer esanik ez. Beste mundu bat da.

15 urteagaz horrelako abentura batera egokitzeak, teoriarik, denbora eskatu behar lizuke. Zu, ordea, berehala moldatu zara.

Lehenengo lasterketan doikuntza eta prestazio aldetik justu ibili arren, gero, itxaroten gunden baino hobeto ibili ginen. Egia esanda, ustekabea ere izan zen. Ez gunden itxaroten.

Zure edadeko pilotu asko dago CMetan korritzen?

Ez. 17 urteko bat denboraldi erdian gehitu zitzaigun, baina horixe bakarrik.

Esperientzia askoz zabalagoa dutenen parean ibili zara.

Egia esanda, oraindik ez dut dena ondo asimilatu. Aurten

aldaketa asko gertatu zaizkit eta denbora apur bat beharko dut. Dena dela, poz handia daukat.

Domenechekin baduzu traturik? Zer esan dizu?

Denboraldi hasieran tratua ona genuen. Gerora ere bai, baina, apurka, txapelketa irabazteko lehian arerio zuzen legez hartzen ninduela somatu nuen. Asteburuan urduri zegoen.

Nondik datorkizu auto lasterketarako afizioa?

Aita auto lasterketetan ibili izan da; beraz, erreferentea etxean izan dut. Zazpi urteagaz Gueñesen kartetan ibili eta gustatu egin zitzaidan. Kataluniako txapelketako lasterketa batean ere parte hartu nuen. Gero, pare bat urtean utzi eta bederatzigaz berriro hasi nintzen.

Gurasoek alde guztietara lagundu dizute?

Bai, aitak eta amak, biek. Gainera, aita izan dut beti mekanikari. Bera barik hau guztia ez zen posible izango; hori argi daukat. Horrez gainera, babesleekin eta musutruk laguntzen dabilzan guztiekin ere esker oneko nago.

Aita mekaniko izateaz aparte, psikologo ere izan duzu?

Hasieran bere aholkuak beharrezko nituen. Orain ohituta nago. Lasaitasuna hartuta daukat.

Formula Libre Txapelketan ere bazabiltza.

Hor ere lider nago, eta proba bakarra falta da amaitzeko. Monoplaza batez korritzen dut; Formula 1eko antzeko autoa da, jendeak ulertu dezan.

Formula 1a aipatu duzu. Gustura aurtengo txapeldunagaz?

Alonsok baino, beste norbaitek irabaztea gura nuen. Vettelek gehiago ere irabazi ditzake. ■ J.D.

« Kart-etatik hona alde handia nabaritu dut: abiadura, dimentsioak... beste mundu bat da »

« Hasieran aitaren aholkuak beharrezko nituen; orain ohituta nago. Lasaitasuna hartuta daukat »



300 gaztetxo batuko ditu gazteen judo torneoa

Bihar 16 klubetako gaztetxoak batuko dira Landako kiroldegian; araudi berritzailea proban ipintzeko ere baliatuko dute torneoa



lazko lehenengo aldia arrakastatsua izan zen, eta klub askok parte hartu zuten. Asier Arroita

Zapatuan, 09:30etik aurrera, 8tik eta 14 urtera bitarteko II. Nazioarteko Durango-Uria Judo Torneoa jokatu dute Landako kiroldegian. Durango Judo Klubak antolatutako duen torneoa 16 klubetako (Euskal Herrikoak zein estatukoak) 300 gaztetxo batzea itxaroten dute. Txapelketa benjamin, kimu eta haur kategorian jokatu dute, baina azkeneko kategoria horretan bakarrik lehiatuko dira. Hala ere, jakinarazi dutenez, parte hartzen duten gaztetxo guztiak jasoko dute domina bana.

Benjamin, kimu eta haur kategoriako gaztetxoak lehiatuko dira Landakon

Iñaki Salas Durango Judo Klubeko arduradunak azaldu duenez, "hainbeste gaztetxo batzen dituen lehiaketa antolatzeari ez da erraza, baina Udalaren laguntzagaz eta Durangon ditugun azpiegitura egokiek dena errazagoa da".

Araudi berritzailea

Biharko txapelketa gaztetxoaren judo bideratutako araudi berritzailea probatzeko ere erabiliko dute. Iñaki Salasek eta Marc Dailos Judo Nova Unió de Catalunyako kideek Frantziako benjamin eta kimuetako araudia eta Madrildiko eskola kirolekoa hartu dituzte oinarri moduan.

Araudia hainbat torneotan proban ipini eta ahalik eta gehien hobetu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundira bidaltzea pentsatua dute, horretara, Bizkaia osoan indarrean ipini dadin.

Araudi berriak helburu bi ditu. Batetik, gaztetxoek tatarrian arriskutsuak edo mingarriak gerta daitezkeen teknikak ezingo lituzkete erabili: "Tatami gainean denak ez duela balio gaztetatik ikasi dezaten gura

Araudia Aldundira bidaltzeko asmoa dute, han onartu eta Bizkaian indarrean ipini dadin

dugu. Horrela, gazteak gehiago dibertituko dira eta kirola praktikatzen jarraituko dute".

Bestetik, araudi horregaz, gazteen mailetan irizpideak bateratzea gura dute, orain klub bakoitzak "bere irizpide propioekin" funtzionatzen baitu. ■ J.D.

Gotzon Gomez

•Errugbi entrenatzailea



Azaroko test match-ak

Adituarentxokoa

Urtero, azaroa heltzearekin batera, errugbi zaleok ipar eta hego hemisferio taldeen arteko partida interesgarriak ikusteko parada izaten dugu. Azaroaren lehen asteburuan Ingalaterra, Irlanda eta Gales hego hemisferio talderik handienak hartu zituzten: Zeelanda Berria, Hego Afrika eta Australia. Hiru partidetan nagusi izan ziren hego hemisferiotik etorritakoak, eta, nola ez, *All Blacks* delakoek eskaini zuten jokorik ederrena eta biziena. Bitxikeria legez, aipatu dezagun hegoafrikarrek, hamar urteren ondoren, Irlandan irabaztea lortu zutela: 21-23.

Halaber, aipatzekoa da Zeelanda Berriak Edinburgon egindako erakustaldia, zazpi entsegu eginez eta 3-49ko emaitzarekin nagusituz. Ingalaterrak, oraingo honetan eskura gehiago jokatuz, Australia menderatu zuen (35-18); Hego Afrikak, ordea justu irabazi zion Galesi Cardiffen: 25-29.

Asteburu honetan ikusmin handiena sortu duten partiduak Dublingo Lansdowne Road zelaiakoa (Irlanda eta Zeelanda Berria) eta Montpellierrekoa dira (Frantzia eta Argentina).

Urtebete eskas falta zaigu Zeelanda Berrian ospatuko den Mundialerako, eta taldeak euren 15ekoak zehazten ari dira. Unerik egokiena da frogak egiteko. Ikusitakoa ikusita, Zeelanda Berria dugu oraingoz errugbiaren *dream teama*, emaitza onak lortzeaz gainera, joko ederra eta ikusgarria eskaintzen saiatzen baitira uneoro. Gainera, Mundiala etxean jokatuko dute. Alternatiba moduan Frantzia aipatuko nuke. Baina ez gaitezen aurreratu eta gozatu dezagun asteburuko *test match*ekin.

Tabirako average bila, 'bere arerio zuzenen ligan'

Aurteneche liderraren kontrako jipoia ahaztu eta garaipena gura dute Logroñon

Joan zen asteburuan Aurteneche Maquinaria liderrak aukera txikiak ere ez zion eman Tabirakori. Ordura arteko sei neurketak irabazita zetorren, eta horren zergatiak argi eta garbi

erakutsi zituzten Landako kiroldegiko kantxan (53-114).

Dena dela, porrot hori aurreikusitako zitekeen, eta pronostikoetan sartzen zen. Segurutzat, liga amaiera heldu ahala, etzi Logroñon Deportes Ferrer Santa Mariaren kontra jokatu dute neurketak eragin zuzenagoa izango du azken sailkapenean, garaipen bat goitik dute-eta. Garrantzitsua izango da averagea zaintzea ere. ■ J.D.

Tabirako azken aurreko dago eta arerio zuzena bisitatuko du etzi

Finalerdiak jokatu dituzte Cafés Baquén

laz Arratibelek kadeteetako finala irabazi zion Jakari; aurten, gazteetan, berriro lehiatuko dira

XXV. Cafés Baqué Txapelketa entzutetsuko irabazleak jakiteko jardunaldi bi bakarrik falta dira. Datorren eguaztenean finalerako txartela izango dute jokoan lurretan lehiatuko diren zortzi pilotariak.

Gazteen kategoriako lehenengo finalista Esteban errioxarraren eta Aretxabaleta markiri

narraren artean ebatziko dute. Ondoren, gipuzkoarren arteko lehia, Jakak Arratibel izango du arerio. Azkeneko partidu horrek badu gatza eta piperra. Izan ere, iaz, kadete mailan, Ibai Arratibelek irabazi zuen Cafés Baqué Txapelketa eta, hain zuzen ere, Eric Jaka menderatu zuen finalean (18-13). Nork bere armekin final dotorea eskaini zuten. Aurten finalerako txartela izango dute jokoan.

Kadeteetan Elezkano zaratamorrak Atutxa galdakoztarren kontra jokatu du; partidu horretako irabazleak Lasa nafarra edo Artola gipuzkoarra aurkituko du finalean. ■ J.D.

Gazte mailako bigarren finalista Esteban eta Aretxabaletaren arteko partiduan ebatziko dute

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz




Dekorazio integrala. Giro freskoak



Espazioak sortzen ditugu, monotonia hautsiz, elementu ez ohikoak erabiliz horretarako, eta argia eta kolorea ere bai, paper garrantzitsua jokatzen dutenak



Estilo ugaritasuna altzarietan zein osagarrietan, dekorazio garai-kidearen funtsezko gakoetara gerturatzeko. Ehundura metalizatua, kolore iradokitzaileak, berrikuntza kromatiko izugarria, benetako larruen imitazioa, etab.



Mikeldi 6 • 48200 Durango • Tel.: 94 681 38 95

Zaldai mendi taldeak esparru ahalik eta zabalena hartu gura du 2011n

Eguaztenean, herritarren aurrean, 2011rako proposamenak aurkeztu zituzten lurretan; ahalik eta gustu gehienak asetzeko plangintza osatzeko asmoa dutela jakinarazi dute

Lurretako Sanmiguel jaietan plazaratu zuten herriko hainbat gazteren ekimenez sortutako Zaldai mendi taldea. Orduan hainbat lagun batu zituen mendi mar-txa antolatu zuten. Harrezkero, mendi taldea formalizatzen eta eskakizun guztietara egokitzen (estatutuak onartu, mendi taldea erregistratu...) aritu dira. Lan

hilean behin edo birritan irteerak edo ekimenak prestatzea da, beti ere "ahalik gustu gehienak asetzeko lituzkeena", Erlantz Zal-dunbidek azaldu duenez. Hain zuzen ere, eguazteneko batzar-raren helburua "esparru eta adin askotariko lagunengana" heltzea ere bazen.

Mendi Astea

Horrela, urtean behin eta ahal den neurrian, mendi aste bat antolatzea nahi dute mendi taldekoek. Horrez gainera, asteburuetan askotariko ekintzak antolatu nahi dituzte: eskiatzera joan, rafting egin, Piriniotara joan, senderismoa, ikus-entzunezkoak... Jaietan lehenengoz antolatu zuten mendi mar-txa egon-kortzea ere gura dute. Datorren eguenean, 19:00etan, beste batzar ireki bat egingo dute jubilatuen elkartearen ondoan dagoen IMIKO egoitzan. (zaldai@hotmail.com). ■ J.D.

Eskiatzea edo rafting egitea lako irteerak antolatu gura dituzte

horiek aurreratuta dituztela, egueztenean mendi taldearen aurkezpena egin zuten Ibarretxe kultur etxean, proiektua herritarrengana zabaldu eta 2011rako plangintza osatzen hasteko.

Izan ere, urte berria egitura, helburu eta plangintza finkatua-reakin hasi nahi dute. Asmoa



Ibarretxe kultur etxean aurkeztu zituzten proposamenak.

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Portugalete
Domekan, 17:00etan, Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA
Zaldua - Berrilatuko
Zapatuan, 16:00etan,
Solobarrian
HIRUGARREN ERREGIONALA
Ezkurdi - Ermua B
Zapatuan, 18:00etan,
Arraipausuetan
Elorrio B - Loiu B
Zapatuan, 18:00etan,
Eleizalden
Berriz B - Derlo B
Zapatuan, 17:00etan,
Berrizburun
Zaldua B - Erandio B
Zapatuan, 18:15ean,
Solobarrian

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Durango Ilarduya-Getxo
Zapatua, 16:00, Arripausueta

ARETO FUTBOLA
NAZIONAL A MAILA
Sasikoa - Muriedas
Zapatuan, 19:30etan,
Landako kiroldegian
NAZIONAL B MAILA
Elorrioko Buskantza - San Jorge Santurtzi
Domekan, 12:00etan,
Elorrioko udal kiroldegian
EUSKAL LIGA

Mallabia - Kukulaga
Domekan, 17:30etan,
Zaldibarko udal kiroldegian
GOREN MAILA

Presion Break - Mamarigako
Zapatuan, 16:30ean,
Berrizburun
LEHENENGO ERREGIONALA
Abadiñoko Gaztetxe - Landeta
Zapatuan, 15:10ean,
Elorrioko udal kiroldegian
Mendibeltz - Muguru
Zapatuan, 17:30ean,
Landako kiroldegian
BIGARREN ERREGIONALA
Gu Lagunak - Txorierrri
Zapatuan, 15:30ean,
Landako kiroldegian

SASKIBALOA
LEHEN ERREGIONAL
BEREZIA
Tabirako - Mungia
Zapatuan, 20:45ean,
Landako kiroldegian

PILOTA
OLAZAR TXAPELKETA
Lau t'erdian:
Ezkurdia - Etxeberria
Binaka:
Apezetxea-Galarraga / Mendizabal-Irureta
Azaroaren 25ean, 21:30ean,
Zaldibarko pilotalekuan

Mañaria erreka Durangon zehar
1. Argazki lehiaketa

1. saria 250€
2. saria: 150 €
+dendak saria: 150 €
(trukatzeko txarteletan)

Oinarriak hemen:
www.durangoopina.com webgunean eta +dendak-en bazkideen establezimenduetan.

Zozketa:
Eman boto online www.durangoopina.com webgunean eta zozketan parte hartuko duzu. Opari-txarteak irabazi ditzakezu crosketak +dendak-en establezimenduetan egitoko.

+dendak
Asociación de Comerciantes de Durangorako Deustua Elkartea

elrute
www.elrute.com

Espainiako Kopa podiumean hasi du Hirumetek

Joan zen asteburuan Espainiako Kopa hasi zuen ziklo krosetan Hirumet taldeak, eta Egoitz Murgoiok hirugarren eta Dani Ruizek bigarren amaitu zuten.

Abadiñarra Ruiz de Larrinaga eta Suárezekin batera ihes eginda ibili zen; azkenean, arabarra sei segundoko aldeagaz nagusitu zen, eta Suárezek sprintean menderatu zuen Murgoitio. Ruiz erori egin zen baina, hala ere, bigarren amaitu zuen 23 urtez azpikoan David Juárezen atzetik.

Asteburu honetan Galiziar Padron eta Asturiasko Navia herrietan korrituko du Hirumet taldeak. ■ J.D.

Kulturalak bigarren postua berreskuratu du

Laudioren kontrako porrotak ez ditu kikildu eta Azpeitian hiru puntuak batu zituzten

Durangoko Kulturalak sailkapeneko bigarren tokian hartuko du, asteburuan, Portugaleteren bisita. Izan ere, Laudio liderraren kontra denboraldiko lehenengo porrota jaso arren (1-3),

Axier Intxaurrearen gizonak sendo zelairatu ziren Azpeitian, eta hiru puntuak batu zituzten Lagun Onak-en kontra (1-2). Horrela, Amorebietaren etxeko estropezu aprobehatuta (0-1 Santurtziren aurka) berriro bigarren ipini dira.

Laudiok ez zuen gupidarik izan Zarautzekin (4-0), eta asteburuan Lagun Onak jasoko dute. Amorebietak, berriz, Ses-tao River bisitatuko du. ■ J.D.

Amorebietak galdu egin zuen etxean, Zarautzen kontra (0-1)

AMALURRA[>]



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Durangoko Udalaren hiru proiektu ingurumenaren Conama Sarietan

Iraunkortasunagaz lotutako hiru proiektu ingurumenaren kongresuko saria eskuratzeko aukera izango dute

Eraikinen eraikuntzan ingurumen arloko hobekuntzak egiteko ordenantza ikusgai egongo da Madrilen

Espainiako Ingurumenaren X. Kongresu Nazionalan parte hartuko du Durangoko Udalak, azaroaren 22tik 26ra

Conamak, Espainiako Ingurumenaren Kongresu Nazionalak hamargarren edizioa izango du Madrilen azaroaren 22tik 26ra. Iraunkortasunaren alde egindako proiektuengatik udalerriari sariak ematen dizkiete kongresu horretan, eta Durangoko Udalak hiru proiektu aurkeztu ditu sari horretarako.

Honakoak dira aurkeztutako hiru egitasmoak: Klima aldatetaren kontrako udal ordenantza eta berotegi efektuko gasen isuria murrizteko udal programa, Durangoko Agenda 21en internet bidez parte hartzeko egitasmoa eta Durangoko Tokiko I. Iraunkortasun Txostena.

Hautagaiak

Durangoko Udalak klima aldatetaren kontrako neurrien ordenantza abian jarri duenetik bero-

tegi-efektua sortzen duten gasen emisioa bajatu egin da Durangon. Adituen aurreikuspenen arabera, 2006tik 2015era % 10 igo behar zen gas horien emisioa, eta, neurriak hartuta, 2006tik hona % 2 baino apur bat gehiago bakarrik igo da.

Agenda 21ean orain arte landutako informazioa eta agiri guztiak webgune batean ipini ditu Durangoko Udalak, eta webgune horren bitartez herritarrek euren iritzia emateko aukera daukate.


Durangoko iraunkortasunaren gaineko txostenak 2007 eta 2009 artean Tokiko Agenda 21etik egindako ekintzak laburtzen ditu. Urte bi horietan egindako ekintza plana, lortutako helburuak eta iraunkortasun adierazle nagusien eboluzioa aztertzen du.

Erakusketa

Conama Sarien hautagaitza horrez gainera, Durangon garatutako ordenantza batek ere bere lekua izango du ingurumenaren gaineko kongresuan; etxebizitzaren eta bulegoen eraikuntzan ingurumen arloko hobekuntzak egiteko ordenantzak. 2008an onartutako ordenantza hori Madrileko kongresuan ikusgai izango da.

Udal ordenantza horren helburua baliabide naturalak ahalik eta gehien aprobetxatzea da, eta eraikinen eraikuntzarako hainbat neurri hartzen ditututan: eguzkiaren eta aireztapen naturalaren arabera eraikinen barnealdea zelan diseinatu, eguzkiari etekin handiena zelan atera eta eguzkia kontuan hartuta eraikinen fatxadak nora eman behar duten, esaterako.

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotriozitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA

Zainduz


FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

asteleheneretik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGIA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Isturiza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA Dra. Aguirre

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;

Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6
jon@psikologo.biz

Durango
www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Azaroaren 20an, Zornotzan
Azaroaren 21ean, Durangon

Otto

Dantzari bat, antzezle bat eta musikari bat dira Elirale talde lapurtarrak sortutako 'Otto' ikuskizunean ohol-tza gainean jarduten dutenak. Musika, dantza eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizunaren ordu erdiko emanaldia eta umeentzako ikuskizunean baliatutako tresnen erakusketa-mintegia egingo dituzte emanaldietan.

ANTZERKIA

BERRIZ

- >> Azaroaren 19an, Abstratosfera taldearen **Akaziaren jokoa**, 20:30ean Kultur Etxean.
- >> Azaroaren 20an, Ondarroako Traman eta Blix taldearen **Odol malkoak** ikuskizuna, 20:00etan Kultur Etxean.
- >> Azaroaren 26an, Glu-Glu taldearen **Anbotoko Mari eta orrazi galdua** ikuskizuna, 18:00etan Kultur Etxean.

DURANGO

- >> Azaroaren 20an, Vaivén Producciones taldearen **El club de las mujeres invisibles** musika eta antzerki ikuskizuna, 20:00etan San Agustin kulturgunean.
- >> Azaroaren 21ean, Elirale talde lapurtarraren umeentzako **Otto** ikuskizuna, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO

- >> Azaroaren 26an, Le Petit Theatre de Pain eta Artedrama taldeen **Errautsak**, 22:00etan Arriola antzokian.

ZORNOTZA

- >> Azaroaren 20an, Elirale taldearen umeentzako **Otto** ikuskizuna, 18:00etan Zornotza Aretoan.
- >> Azaroaren 25ean, Le Petit Theatre de Pain eta Artedrama taldeen **Errautsak** antzezlana, 20:00etan Zornotza Aretoan.

BERBALDIA

BERRIZ

- >> Azaroaren 23an, Ermuko **Zipriltintzen gizon taldearen solasaldia**, arratsaldeko 18:00etan Kultur Etxean (azaroaren 25eko nazioarteko egunerako antolatutako egitarauaren barruan).

DANTZA

DURANGO

- >> Azaroaren 20an, Aiko erromeriaren **dantzaldi ibiltaria**, arratsaldeko 19:00etan Plateruena kafe antzokian.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

- >> Azaroaren 4tik 19ra, Udaleko Berdintasun sailak antolatutako **Generoa eta hirigintza** erakusketa Errota kultur etxean.
- >> Azaroaren 22tik abenduaren 3ra, Javier Fernández abadiñarraren **Proyecto derechos** izeneko argazki erakusketa Errota kultur etxean.

BERRIZ

- >> Azaroaren 12tik 21era, **Berrizko toponimia** ikerketatik ateratako planoen erakusketa, eta herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera Kultur Etxean.

DURANGO

- >> Azaroaren 28ra arte, **Amanecer en la esencia** izeneko erakusketa, Esther Galarzaren eskultura lanak Arte eta Historia Museoa ikusgai.

ZORNOTZA

- >> Azaroaren 15etik abenduaren 7ra, Beittu Art Gallery pintura estudioaren **Inpresioak**, Zelaieta Zentroan.

IKASTAROA

DURANGO

- >> Azaroaren 22tik 25era **Barbaro elkartek** antolatutako **Jakien manipulazioa** ikastaroa. Izen emateko epea hasita dago.
- >> Azaroaren 24an, Durangaldeko Behargintzak antolatutako **Autonomoen jubilazioa, langabezia eta jarduera bertan behera uzteko legeari** buruzko saioa, 16:30etik 18:00etara. Izen-ematea Durangaldeko Behargintzako 94 623 25 22 telefono zenbakian.

MAÑARIA

- >> Azaroaren 27an, eta abenduaren 4, 11 eta 18an, **Sukaldaritza ikastaroa (postreak)** 10:00etatik 12:00etara arte Leixarriako txokoan. Izen-ematea azaroaren 23a baino lehenago.

MUSIKA

DURANGO

- >> Azaroaren 19an, **Oreka Tx** eta Iban Nikolainen emanaldiak, 22:00etan Plateruenean.
- >> Azaroaren 19an, **Kante flamenko** emanaldia, 18:00etan San Agustin kulturgunean.
- >> Azaroaren 20an, Durangoko **Musika Bandaren** Zezili Deunaren emanaldia, 20:00etan Andra Mariaren basilikan.
- >> Azaroaren 25ean, **Xabi Bandini (Kerobia)** Kantuaren Kantoia berbaldi musikatueta, 20:00etan Plateruena kafe antzokian.
- >> Azaroaren 26an, **Army-arma** eta **Galsene Warriors** taldeen emanaldiak, 22:00etan Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO

- >> Azaroaren 20an, **Ñaco Goñi & Stevie Blues Band** taldearen emanaldia, Arriolako Jazz eta Blues Jaialdiaren barruan, 22:30etan, Ateneoan.
- >> Azaroaren 21ean, **Los gatos bizcos** blues talde madrildarraren kontzertua, 21:00etan Portalekua tabernan.

MAÑARIA

- >> Azaroaren 20an, **Txabolaren III. urteurren jaia** herriko plazako karpan. 12:00etan triki-poteoa, 14:00etan bazkaria, 16:00etan Warriors (hip-hop) taldearen kontzertua, 17:00etan txabolako taldeen emanaldiak, eta 22:30ean ere kontzertuak.

ZINEFORUMA

BERRIZ

- >> Azaroaren 22tik abenduaren 2ra arte, **Euskal Zinemaren astea**. Filme eta dokumentalen emanaldiak, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxean.

ELORRIO

- >> Azaroaren 19an, **Un grito desde el Sahara** dokumentalaren emanaldia, 22:30ean Gaztetxean.

IURRETA

- >> Azaroaren 23an, **Te doy mis ojos** bideo-foruma Ibarretxe kultur etxean (azaroaren 25erako egitarauaren barruan).

BESTEAK

DURANGALDEA

- >> Abenduaren 11n, **1.950ean jaiotako bazkaria** Plateruena kafe antzokian. Izen emateko: lurretako Ibai-Ondo kafetegian apuntatu eta 619728271 edo 635717507 telefonora deitu abenduaren 4a baino lehen.

IURRETA

- >> Azaroaren 19an, lurretako txirindulari elkartearen **urteko batzarra** 18:30ean Ibarretxe kultur etxean. Ondoren, 21:30ean afaria Kukutza jatetxean.

- >> Azaroaren 26an, Alaitz Muro **ipuikontalaria** 17:30ean (3 eta 4 urteentzako), eta 18:00etan (5 urtetik gorakoentzako), Ibarretxe kultur etxean.

- >> Azaroaren 26an, helduendako **De dioses, semidioses, sabios y seres extraordinarios ipuikontalaritza** saioa, Alacanteko Inma Ruiz kontalariagaz, 20:00etan Ibarretxe kultur etxean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Harry Potter y las reliquias de la muerte (1. partea)
Zuzendaria: David Yates
barikua 19: 19:00/22:00
zapata 20: 16:30/19:30/22:30
domeka 21: 17:00/20:00
astelehena 22: 19:00/22:00
martitena 23: (ikuslearen eguna): 20:00

Zineforuma

Buried/Enterrado
Zuzendaria: Rodrigo Cortés
eguna 25: 20:30

ELORRIO

Arriola

Carancho
Zuzendaria: Pablo Trapero
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:00

Umeen zinema

Marmaduke
Zuzendaria: Tom Dey
domeka 21: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

La red social
Zuzendaria: David Fincher
zapata 20: 22:00
domeka 21: 20:00
astelehena 22: 20:00

Umeendako zinema

Txoritxoak
Zuzendaria: Jannik Hastrup
domeka 21: 17:30

Zinekluba

Ajami (v.o.s.)
Zuzendaria: Scandar Copti
martitena 23: 17:30

azaroko agenda

Azaroak 20-21-27-28 • Txirindulari elkarteak
10:00 Ibilbide ezberdinak (68-78km)

Azaroak 20 • Kultur bidaia "Salamanca"
20an, 08:00 Irteera. Bisita "Peña de Francia y la Alberca"
21ean, Bisita gidatua "Salamanca" (Catedral vieja y nueva, Plaza Mayor, Casa de las Conchas, Universidad).

Azaroak 23-25 • Gizarte Ongizatea
23an, 18:30 Bideo-foruma "Te doy mis ojos". Moderatzailea: Marina Santa Coloma (Skolastika), Ibarretxe kultur etxean
25ean, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna
19:00 Adierazpen instituzionalaren irakurketa

Azaroak 26 • Herri Biblioteka
Ibarretxe kultur etxean:
17:30 (3-4 urte bitartekoak), Alaitz Muro
18:00 (5 urtetik gorakoak), Alaitz Muro
20:00 Nagusien ipuikontalaria "De dioses, semidioses, sabios y seres extraordinarios"
Inma Ruiz (Alacant)

Dirulaguntzak • Igerilekuetako abonuetako, euskarazko, UEU, musika eta igerilekuetako ikastaroentzako dirulaguntzak eskatzeko epea abenduaren 3a arte zabalik.

IURRETAKO UDALA

DENBORAPASAK

	Lerroak	Moztua	Otx!
	Semearen arreba	Gabarra txikiak	
	Pozik		
	Unatu, nekatu		
* Irudiko hondartza	Ipar EH-n, erak		Atorra
Deliberamendua	Ardi taldeak		
Moduak		Galdere-tan	
Puska		Gabezia	
		Bokala	Potasioa
		Nafarroako hiria	Bokala
Ez irabaztea			
Gabetua			Kontso-nantea
			Diru, bokalik gabe
Bibliako pertsonaia	Daukat		Kontso. bustia
	Burdinola		Aurrizkia
		EH-ko ibaia	
		Musika nota	
Handi			Röntgen
Makeakoa			Kontso-nantea

ZORION AGURRAK > zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 lurreta



Zorionak, **Maddi!** Gure txiki handiak hiru urte dauzka jada! Atzo hasi eta asteburura arte luzatuko dugu ospakizuna, konforme? Musuak eta pottak gure parranderatxoari!



Zorionak joan den azaroaren 14an jaio den **Aiur Gorriti Martinentzat**. Munduko musurik handiena munduan gehien maite zaituztenen partez. Mua!



Azaroaren 12an **Aritz Ispizuaren** urtebetetzea izan zen. 7 urte egin zituen, eta oso ondo pasatu zuen eguna. Musu handi bat bere gurasoen eta anaia Urtziren partez.




Julen Mendiolea Basabe. Zorionak atzo urteak egin zituen igerilari onenari. Musu handi bat Astolako familaren partez, eta jarraitu halako jatorra izaten.

1

9	6			2	
		8	6	3	5
7	5			4	
	1	4			2
		5		6	8
5	8	3			1
		7		1	8
			4	7	3
2	1			6	

2

6	7	3	4		8
		8		2	1
2	4	8			9
		1			6
8		6			9
			5	2	7
3			7		2
4			1	9	
9	1				7



Datorren abenduaren 4an **Nagore** eta **Xabi** ezkondu egingo dira, zorionak bikote! Ospatzeko, zapatu honetan bazkari eder batera gonbidatuko gaituzte. Eskerrik asko eta oso ondo ibili Argentinan.

BOTIKAK

- Barikua, 19**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)
- Zapatua, 20**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-13:30
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Domeka, 21**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresolo, nº 4-Abadiño)
- Astelehena, 22**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
- Martitzena, 23**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- Eguaztena, 24**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
- Eguena, 25**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak**.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza.....94 600 72 00
Ertzaintza.....94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia...946 811 001
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88
- EGURALDIA**
- 13° **BARIKUA** ☁
12° **ZAPATUA** ☁
9° **DOMEKA** ☁
8° **ASTELEHENA** ☁
8° **MARTITZENA** ☁

- ARIES** (marxoak 21 - apirilak 20)
Behar den moduan elikatu ezik gaixotu egingo zara. Txokolate gutxiago eta barazki gehiago!
- TAURUS** (apirilak 21 - maiatzak 20)
Estutu garuna, laguna. Batzuetan irtenbideak ez dira berehala etortzen. Gogorrago saiatu behar duzu.
- GEMINI** (maiatzak 21 - ekainak 20)
Aliantzarik sortu ezik, galdu egingo duzu. Zabaldu agenda eta deitu zure kontaktu guztiei.
- CANCER** (ekainak 21 - uztailak 20)
Inbidia gainera hartzen uzten badoizu bizi ere ez zara egingo; jan egingo zaitu.
- LEO** (uztailak 21 - abuztuak 23)
Sasoi batean sarritan geratzen zinen lagunekin; gaur egun, apenas ikusten dituzun.
- VIRGO** (abuztuak 24 - irailak 23)
Zerk jaten dizu barrua? Zergatik ez zara zoriontsu? Zergatik daukazu bihotz hain triste?
- LIBRA** (irailak 24 - urriak 23)
Mendekua ondo hausnartu ondoren hartu beharreko jokabidea da. Beti ez da zilegi.
- SCORPIUS** (urriak 24 - azaroak 23)
Bizitzak ez zaitu beti itxarondako bidetik eroaten. Batzuetan bide ezezagunak zeharkatu behar dira.
- SAGITARIUS** (azaroak 24 - abenduak 23)
Bazenuen hainbeste kalte eragin dizun horri aurpegira hiru berba esateko sasoi. Zorionak.
- CAPRICORNUS** (abenduak 24 - urtarrilak 20)
Geruza zurrin eta serio horien azpian pertsona sentibera eta melankolikoa ezkatzen da.
- AQUARIUS** (urtarrilak 21 - otsailak 21)
Batzuetan defentsarik onena kalkulatu eraso izaten da. Egin zeuk lehenengo mugimendua.
- PISCIS** (otsailak 22 - martiak 20)
Denek mesedeak eskatzen dizkizute eta ez dakizu ezetz esaten. Batzuetan 'Ez' esan beharra dago.

SOLUZIOAK

4	9	8	5	6	7	4
3	2	1	9	5	8	6
8	5	6	6	6	4	7
2	7	3	2	3	4	7
4	6	8	7	1	6	8
5	9	3	4	5	8	2
6	7	8	6	7	3	5
7	1	4	2	3	5	7
8	6	4	7	5	2	1

6	1	2	3	8	5	7	4
4	5	7	1	9	6	3	8
8	3	6	4	7	1	5	2
7	8	5	1	5	2	4	8
2	4	1	6	3	4	2	1
3	5	6	7	8	9	5	7
1	2	4	5	7	3	6	8
6	5	2	7	3	4	1	8

V	R	R	V	E	K	V	M
R	•	I	R	R	V	L	•
O	R	B	E	•	E	O	N
D	D	•	T	U	D	•	•
N	•	V	U	D	T	V	G
V	E	Z	T	L	V	G	•
K	•	E	•	I	T	V	Z
L	V	•	K	V	R	E	•
V	I	K	V	B	V	R	E
•	K	V	R	V	•	E	•
I	V	L	V	•			
V	B	V	L	V			
•	E	•	I	•			

**GAURSAN IBILGAILU
BAT EROSTEA EZ DA
ABENTURA BAT,
SEGURTASUN
SINONIMOA BAIZIK**

*Andonik
esana*

Andoni Baños,
Aukerako Ibilgailuen Arduraduna

facebook.



MÉGANE DYNAMIQUE

1.5 dCi 105cv

2009

Aire girotua, gris kolorekoa

14.800€



FORD FIESTA

1.4 TdCi 70cv

2008 Aire girotua, irrati CDa

7.900€

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

PSP transferentzi gastuak bane. 10/11/30a arte edo izakinak amaitu arte baliozko eskaintza. Ikustarazitako eta eskainitako bertsioak desberdinak izan daitezke



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA.

GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursaautoak.com

BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO. www.bilboberri.com.

"Nagusitan musika magisteritza ikasi gurako nuke; musika nire bizitza da"

Joan zen zapatuan Izarren Distira gazteen talentu txapelketa irabazi zuen Alejandra Navarro abadiñar gazteak

Musika konposatzea maite du Alejandra Navarro abadiñarrak. Berak sortutako abesti bategaz, Izarren Distira gazteen talentu txapelketa irabazi zuen joan zen zapatuan. Pianoa lagun, eszenatoki gainean urduri ipintzen bada ere, apurka-apurka urduritasuna gaintzen dabil Alejandra. Bere geroa musikagaz lotuta egotea gustatuko litzaiokio.

Zelako esperientzia izan da Izarren Distirakoa?

Oso ona. Ondo pasatu dugu, eta jendea ezagutu ere bai, oso ona izan da esperientzia.

Lehenengo castingak izan zenituzten, gero gala...

Bai, berezia izan da. Castingean urduritasun handiagaz egon nintzen, eta gero finalera pasatu nintzela jakin nuenean, gehiago!

Zuk sortutako abesti bategaz parte hartu duzu. 'Ama ez joan' izeneko abestia da. Zelakoa da?

Pixka bat tristea da. Ume batek bere amatxori kantatzen dion abestia da, eta amak bere buruaz beste egin gura duelako kantatutakoa. Triste da, baina, aldi berean, polita.

Txapelketarako sortutakoa da edo lehenago sortu zenuen?

Lehenago sortu nuen, orain dela urte eta erdi edo bi urte. Gainera, Madrilen grabatzeko aukera izan nuen. Nire osaba baten lagun batek etxean grabatzeko tresnak dauzka, eta bertara joan nintzen grabatzera. Ordutik hainbat txapelketetan parte hartu dut, eta denetan abesti horrekin parte hartu dut.

Zergatik abesti beragaz?

Ez dakit. Sentimendu handia duen kanta da, eta jendeak orain arte asko gustatu zaiola esan dit.

Abesti gehiago konposatu dituzu?

Bai. Euskaraz bi dauzkat, eta hiru edo lau gazteleraz. Pianoagaz edo gitarragaz jotzen ditut.

Zertan inspiratzen zara abestiak sortzeko?

Bat-bateko kontua izaten da. Etxean nagoela halako batean pentsatzen hasten naiz, eta idatzi egiten dut. Pianoa gertu edukita, notak jotzen hasten naiz... eta bat-batean etortzen zaizkit ideiak.

Lehenengo abestien letrak sortzen dituzu, edo alderantziz izaten da prozesua?

Normalean lehenengo musika egiten dut, eta gero hasten naiz berbak idazten.

Noiztik zabilta musika munduan?

Pianoa orain dela sei edo zazpi urtetik jotzen dut, eta gitarrakasten bi urtean jardun nuen. Biekin nahiko ondo moldatzen naiz. Abestiak konposatzeko gehiago gustatzen zait agian pianoa, baina gitarra ere asko gustatzen zait.

Zer gairi kantatzen diezu?

Normalean gaiak nahiko tristeak izaten dira. Maitasunari kantatzen diot gehienetan; maiteminduta nagoela, baina kontua ez doala ondo... abesti alaiagoren bat badaukat, baina ez dakit zergatik errazagoa egiten zait kanta tristeak sortea.

Hemendik aurrera musikagaz jarraitzeko asmoa daukazu?

Benetan gustatuko litzaidake.

Musikagaz lotutako etorkizuna edukitzea itxaroten dut. Nagusitan musika magisteritza ikasi gura dut. Ea ahal dudan! Niretzako musika nire bizitza da.

Zelako musikagustatzen zaitzu?

Guztia. Diskoteketan jartzen dutena, popa, rock apur bat...

Zer talde?

Adibidez, asko gustatzen zaizkit Fondo Flamencko eta Los Rebutitos taldeak.

Oraindik aurrera, zer?

Laster abesti berri bat prestatzen hasi gurako nuke. Musikari berari buruz berba egin gura dut abestiren baten. Lehiaketa gehiagotara aurkeztea itxaroten dut, eta apurka-apurka urduritasuna kentzen joatea. Dagoeneko hainbat txapelketara aurkeztu naiz, eta eznaiz hain urduri ipintzen, baina publiko aurreko beharalantzen jarraitu gura dut.



Alejandra Navarro •

Abadiñarra

16 urte ditu



Jasone Agirre
Kazetaria

Txokolatea

Txokolatea maite duen jendearekin inguratuta bizi izan naiz beti, nahiz eta ni oso txokolatezalea izan ez. Akordatzen naiz umetan, Maite, nire laguna, eta bere hiru ahizpak hor ibiltzen zirela txokolatea lehenen nork harrapatuko, burko azpian gorde eta gero, sekretuan, bakardadean gozatzeko txokolateaz. Lehengusuenean ere, armairua zabaldu eta txokolate tableta ilarak han egoten ziren, oparotasunaren irudirik ederrena niretzat, orduko denboretan. Gero, ezkondu eta gizona, zintzo-zintzo, "hemen nauzu", txokolatearekin batera etorri zitzaidan. Biak ala biak, bata bestea barik ez dago.

Hara non jakin dudan txokolateak ekar lezakeela bakea Euskal Herrira

Zorioneko txokolatea. Eta orain, hara non jakin dudan txokolateak ekar lezakeela bakea Euskal Herrira. Bai, hala omen. Brian Currin abokatu hegoafrikarrari galdetu diote nork ordaintzen dion euskal gatazkan bitartekari lana egiteagatik. Berak azaldu duenez, txokolatea salduz diruak egindako enpresari batek gatazka politikoak konpontzeko fundazio bat sortu zuen, eta fundazio hori da, hain zuzen, bere soldata ordaintzen duena. "Beste arrazoi bat gehiago txokolatea maite izateko", esango didate. Horregatik inoiz bakerik lortzen bada, nire proposamena da xanpainarekin topa egin behar, txokolate ontzatxo bat ahoan sartu, begiak itxi eta gozatzea.

Munduko kaferik eta terik onenak
Kolonbia, Kenya, Guatemala, Nikaragua,...

LA TOSTADORA
Pasión por el espresso

CAFES LA TOSTADORA
Andramari kalea (DURANGO) - Tlf.: 946 81 48 36